# VILLAVA ATARRABIA

179 | APIRILA 2024 ABRIL

Atarrabiako udal informazio aldizkaria
Boletín de información municipal de Villava



**06 UDAL ESTRATEGIA / ESTRATEGIA MUNICIPAL**

## Adinekoak zaintzeko ekimena

## Villava cuida a sus mayores

**08**



Trafikoa berrantolatu eta murrizteko plana

Plan para reordenar y reducir el tráfico

**21**

Gazte enplegurako planaren ekintzak, abian

Arrancan las acciones del Plan de empleo joven

**HEMEN GAITUZU / SÍGUENOS EN:**

**www.villava.es**

**Twitter** (municipal)

**Facebook**
(Berdintasuna-Igualdad / Kirolak-Deportes / Kultura-Cultura)

**EGIN ZAITEZ AUAko HARPIDEDUN! / SUSCRÍBETE AL BIM**

# OSOKO BILKURAK | PLENOS

## OSOKO BILKURA ARRUNTA

### 2024ko URTARRILAREN 30a

**Euskara teknikariak kontratatzeko zerrenda bat sortzeko deialdia, lankidetza hitzarmena sinatu duten Nafarroako Toki Entitateetarako.** Zinegotzi guztiak bertan zirela, gaia mahai gainean gelditu zen, hitzarmena aldatu behar delako, bai zerrenda kudeatzeko moduari dagokionez, bai gaiei dagokienez, eguneratu behar baitira.

**"1.080 orain" Contigo Zurekin taldearen mozioa.** Osoko bilkurak mozio onetsi, eta Nafarroako Gobernuari eta Parlamentuari eskatu die behar den aurrekontu-partida sor dezatela 2024tik aurrera pentsiodunen pentsioa 1.080ra arte osatzeko, 14 ordainketatan. Udalak ere bat egin du "Ahora 1.080€ Orain" gizarte ekimenaren aldarrikapenekin eta, zehazki, genero arrakala pentsioetan ezabatzeko eskaerarekin. Osoko bilkuran hartutako erabakia Nafarroako Gobernura eta Parlamentura igorri da. 10 boto izan ziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, UPN eta Contigo Zurekin) eta 2 abstentzio (PSN eta PP).

**Atarrabia Geroa Bairen mozioa euskararen ordenantzari buruz.** Udalbatzak mozioa onetsi zuen, 14 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN eta Contigo Zurekin) eta 3 abstentzio (UPN eta PP). Udalak, beraz, onartu du bete dadila osorik euskararen ordenantza, 2011ko urriaren 25eko Nafarroako Aldizkari Ofizialaren 212. zenbakian argitara emandakoa, hots, osoko bilkuretako eta udal kontseiluetako aktak euskaraz ere idatziko direla, bai eta erakunde autonomoetakoak ere, halakorik balego, eta erabat elebitan ere izanen direla Udalak hiritarren eskura jartzen dituen dokumentu eta ereduak, administrazio prozeduren berri ematea helburu dutenak, eta elebitan, halaber, posta elektronikoak, SMSak, web orriak, blogak eta antzekoak, eta udalerriaren irudi instituzionala edo kanpokoa erakusteko erabiltzen diren gainontzeko komunikabide edo formatuak.

## OSOKO BILKURA ARRUNTA

### 2024ko OTSAILAREN 27a

**2023ko aurrekontu luzatuaren 1. aldaketa-espedientea (gordailua eratzea).** Zinegotzi guztiak bertan zirela, Udalbatzak kreditu berezia onetsi zuen 3 milioi euroko gordailu bat eratzeko, Ingurumena Lehengoratzeko Planaren estatu-diruen bidez, baliabide atxikien diruzaintzako gerakinaren kargura. 10 boto izan ziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN, Contigo Zurekin eta PP) eta 2 abstentzio (UPN).

**2023ko aurrekontu luzatuaren 2. aldaketa-espedientea (Ingurumena lehengoratzeko Inbertsioak).** Udalbatzak 305.342,83 euroko kreditu berezia onetsi zuen Ingurumena Lehengoratzeko Planerako (Ultzama ibaiko lanak), baliabide atxikien diruzaintzako gerakinaren kargura. 10 boto izan ziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN, Contigo Zurekin eta PP) eta 2 abstentzio (UPN).

**2023ko aurrekontu luzatuaren 3. aldaketa-espedientea 23 (karpa).** Osoko bilkurak 71.746,95 euroko kreditu bat onetsi zuen, karpa desmuntagarri bat erosteko, Udaletxe plazan paratzeko, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura. 14 boto izan ziren alde (EH Bildu, UPN, PSN, Contigo Zurekin eta PP) eta 3 abstentzio (Atarrabia Geroa Bai).

**2024ko aurrekontu orokorra.** Udalbatzak 13.422.355,82 euroko aurrekontua onetsi zuen 2024rako, 11 boto izan baitziren alde (EH Bildu, PSN eta Contigo Zurekin) eta 6 kontra (Atarrabia Geroa Bai, UPN eta PP).

**Plantilla organikoa. Hasierako onespena.** Osoko bilkurak plantilla organikoa onetsi zuen, 14 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN eta Contigo Zurekin) eta 3 kontra (UPN eta PP).

**Iruñerriko Mankomunitateko estatutuen 6. artikuluaren aldaketa (mugikortasuna).** Osoko bilkurak aho batez onetsi zuen Iruñerriko Mankomunitateko estatutuen aldaketa, erakunde horrek Iruñerriko mugikortasuna kudea dezan (bizikleten alokairua); beraz, baita Atarrabian ere.

**M-8ko adierazpen instituzionala.** Udalbatzak aho batez onetsi zuen M-8ko adierazpen instituzionala, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzen jarraitzeko gure esku-hartze esparruan, dela politika publikoen bidez, dela genero ikuspegia udal arau, plan eta proiektu guztietan txertatuz; azterketa eta ikerketa feminista bultzatzen jarraitzeko gure testuinguruan, pertsonen bizitzaren etapa eta esparru guztietan dauden desberdinkeriak ikusarazteko; mugimendu feministak gizarte zuzen eta berdintasunezkoa lortzeko egin dituen ekarpen eta lan guztiak aintzat hartzeko, erakundeekiko harremanetarako esparruak sortuta; eta adin guztietako gizonekiko esku-hartzea bultzatzeko, berdintasunezko maskulinitate ereduen eraikuntza sustatze aldera.

**"Yala Nafarroa Palestinarekin" ekimenaren premiazko mozioa.** Mozioaren premia onetsi zen, 15 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, UPN eta Contigo Zurekin) eta 2 abstentzio (PP eta PSN). Gero, mozioa bozkatu eta onetsi zen, 13 boto izan baitziren alde (EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai eta Contigo Zurekin) eta 4 aurka (UPN, PP eta PSN). Udalak, beraz, bat egin du martxoaren 2ko "2 ordu Palestinaren alde" ekitaldiarekin, hartan parte hartzeko eta Palestinarekiko elkartasuna agertzeko jarduera zabaltzeko. Ekitaldian salatu zen Palestinan egiten ari den sarraskia; bestalde, dirua bildu zuten Benjamín Netanyahu nazioarteko auzitegietara eramateko, jurista palestinarren eskutik eta, Mundubat GKEaren bidez, Gazan proiektuak bultzatzeko, aspaldi-aspalditik hona ari baita Palestina osoan lanean. Gazan eginen den giza ekintza UAWC eta UPWC erakundeen bidez garatuko da.





**179**

APIRILA
**2024**
ABRIL

ATARRABIAKO UDAL INFORMAZIO ALDIZKARIA

BOLETÍN DE INFORMACIÓN MUNICIPAL DE VILLAVA

**Argitaratzailea / Edita:** Atarrabiako Udala / Ayuntamiento de Villava
**Erredakzio Kontseilua / Consejo de Redacción:** Mikel Oteiza, Mikel Asiain, Javier López, Richard García, Yadira Martín, Javier Ibáñez

**Argazkia / Fotografía:** Jon Urriza / Zoe Martikorena / Atarrabiako Udala-Ayuntamiento de Villava
**Itzulpena / Traducción a euskera:** Kike Díez de Ulzurrun
**Egilea / Realiza:** Heda Comunicación

**Inprimatzailea / Imprime:** Idazluma
**Ale kopurua / Tirada:** 4.400
**LG / D.L.:** NA 1223-1996
**Doako banaketa / Difusión gratuita**

MIXTO
Papel procedente de fuentes responsables
Papera ingurumena zainduz sortua
FSC® C021816

## PLENO ORDINARIO

### 30 DE ENERO DE 2024

**Convocatoria para la creación de una lista de contratación de técnicos/as de euskera para las Entidades Locales de Navarra firmantes del Convenio de Colaboración.** En una sesión ordinaria a la que asistió toda la Corporación municipal, el tema quedó encima de la mesa ante la necesidad de modificar los términos del convenio en cuanto a los artículos que recogen el modo de gestión de listas y en cuanto al temario, que necesita una actualización.

**Moción de Contigo Zurekin "1.080 ahora".** El Pleno aprobó por 15 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, UPN y Contigo Zurekin y 2 abstenciones de PSN y PP demandar al Gobierno y Parlamento de Navarra que habilite desde el año 2024 la partida presupuestaria necesaria para complementar hasta 1.080 euros en 14 pagas la pensión de las personas pensionistas; manifestar el apoyo de este consistorio a las reivindicaciones de la iniciativa social "Ahora 1.080€ Orain" y, concretamente, a la eliminación de la brecha de género en las pensiones; y enviar al Gobierno y Parlamento de Navarra notificación de la decisión adoptada en el Pleno de este Ayuntamiento.

**Moción de Atarrabia Geroa Bai sobre la ordenanza de euskera.** La corporación municipal aprobó por 14 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN y Contigo Zurekin y 3 abstenciones de UPN y PP el cumplimiento íntegro de la ordenanza de euskera recogida en el Boletín Oficial de Navarra Nº 212 de 25 de octubre de 2011, en la que se establecía que las actas de los Plenos, de los Consejos municipales y de los organismos autónomos, si los hubiere, se realizarán también en euskera y que también serán totalmente bilingües los documentos y modelos que el Ayuntamiento pone a disposición de la ciudadanía en orden a informar sobre los diferentes procedimientos administrativos; los correos electrónicos, SMS, páginas web, blogs y similares; y cualquier otro medio o formato utilizado para reflejar la imagen exterior o institucional del municipio.

## PLENO ORDINARIO

### 27 DE FEBRERO DE 2024

**Expediente de modificación presupuestaria nº 1 al presupuesto prorrogado de 2023 (Constitución de depósito).** En una sesión plenaria a la que asistió toda la Corporación municipal, el Pleno aprobó por 15 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN, Contigo Zurekin y PP y 2 abstenciones de UPN un crédito extraordinario para la constitución de un depósito con fondos estatales del Plan de Recuperación Ambiental por importe de 3 millones de euros con cargo al Remanente de Tesorería de Recursos Afectados.

**Expediente de modificación presupuestaria nº 2 al presupuesto prorrogado 2023 (Inversiones Recuperación Ambiental).** El Pleno aprobó por 15 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PSN, Contigo Zurekin y PP y 2 abstenciones de UPN un crédito extraordinario de 305.342,83 euros para el Plan de Recuperación Ambiental (actuaciones río Ultzama) con cargo al Remanente de Tesorería de Recursos Afectados.

**Expediente de modificación presupuestaria nº 3 al presupuesto prorrogado 2023 (Carpa).** El Pleno aprobó por 14 votos a favor de EH Bildu, UPN, PSN, Contigo Zurekin y PP y 3 en contra de Atarrabia Geroa Bai la incorporación de un crédito de 71.746,95 euros para adquirir una carpa desmontable para la plaza consistorial con cargo al Remanente de Tesorería para gastos generales.

**Presupuesto General para el ejercicio 2024.** El Pleno aprobó por 11 votos a favor de EH Bildu, PSN y Contigo Zurekin y 6 en contra de Atarrabia Geroa Bai, UPN y PP un Presupuesto para 2024 de 13.422.355,82 euros.

**Plantilla orgánica. Aprobación inicial.** El Pleno aprobó por 14 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, PNS y Contigo Zurekin y 3 contra de UPN y PP.

**Modificación artículo 6 de los estatutos de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona (movilidad).** El Pleno aprobó por unanimidad la modificación de los estatutos de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona para que sea la MCP la que se encargue de la gestión de la movilidad (alquiler de las bicicletas) en la Comarca de Pamplona, y por tanto, de Villava.

**Declaración institucional del 8 M.** El Pleno aprobó por unanimidad la Declaración institucional del 8 M para seguir promoviendo la igualdad entre mujeres y hombres en nuestro ámbito de intervención a través de las políticas públicas y la incorporación de la perspectiva de género en todas las normas, planes y proyectos municipales; para continuar impulsando el estudio y la investigación feminista en nuestro contexto para visibilizar las desigualdades existentes en todos los ámbitos y en todas las etapas de la vida de las personas; para reconocer las aportaciones y el trabajo del movimiento feminista para el logro de una sociedad justa e igualitaria, creando espacios para la interlocución con las instituciones; y para impulsar la intervención con los hombres, de todas las edades, para promover la construcción de modelos de masculinidad igualitarios.

**Moción de urgencia de Yala Nafarroa con Palestina.** La urgencia de la moción fue aprobada por 15 votos a favor EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai, UPN y Contigo Zurekin y 2 abstenciones de PP y PSN. Sometida a votación la moción para adherirse al evento del 2 de marzo "2 horas por Palestina" así como participar y difundir este evento en solidaridad con Palestina, fue aprobada por 13 votos a favor de EH Bildu, Atarrabia Geroa Bai y Contigo Zurekin y 4 en contra de UPN, PP y PSN. Durante el acto se denunció la masacre que se está llevando a cabo en Palestina y realizaron una colecta económica para llevar a Benjamín Netanyahu ante los tribunales internacionales de mano de juristas palestinos y para impulsar proyectos en Gaza a través de la ONG Mundubat que trabaja en toda Palestina desde hace décadas. La acción humanitaria en Gaza se desarrollará de la mano de UAWC y UPWC.

alfatarrabia
Mantenimientos y Eficiencia Energética
INSTALACION DE PLACAS SOLARES
PUNTOS DE RECARGA COCHE ELECTRICO
VIVIENDAS – COMUNIDADES – EMPRESAS
ESTUDIO PERSONALIZADO SIN COMPROMISO
TE AYUDAMOS A TRAMITAR LAS SUBVENCIONES
AYUDA AL PLANETA – PAGA MENOS
Travesía Karrobide 3, Bajo – Villava/Atarrabia
948593834 – 648471140 - LLAMANOS

Anúnciate
948 13 67 66
Zure iragarkia




FRENAUTO
FRENOS DEL AUTOMOVIL
Ricardo Bel, s/n
Tel. 948 33 24 33
31610 VILLAVA

# 2024ko aurrekontua 13.422.355,82 eurokoa da

Udalak 13.422.355,82 €-ko aurrekontua onetsi zuen **otsailaren 27an** 2024. urterako (11 boto izan ziren alde: EH Bildu, PSN eta Zurekin-Contigo; eta 6 aurka: Atarrabia Geroa Bai, UPN eta PP).
Inbertsioak 3.464.516 €-koak izanen dira, hau da, gastuetara bideratu den diru guztiaren % 25. Aurrezki garbia 493.150 €-koa da eta % 19,91 igo da iazkoarekin alderatuta (aurrezki gordinaren eta finantza-kargaren arteko aldea).
Inbertsioen artean, nabarmentzekoa da, batetik, kirol instalazioetako lanak egitera bideratuko diren 2.500.000 €-ak (mailegu bidez ordaintzekoak) eta, bestetik, igerilekuetako aerotermia sistema jartzeko erabiliko diren 90.000 €-ak (IDAEri 45.000 € eskatu zaizkio sistema hori jartzeko).
Era berean, beste hauek dira nabarmentzekoak: 102.000 €, herriko trafikoa berrantolatzeko; 90.000 €, Ricardo Bel karrika zolatzeko (den-dena Nafarroako Gobernuak emanik); 90.000 €-ko partida bat, ikastetxeetan inbertsioak egiteko (Nafarroako Gobernuak 60.000 € jarriko ditu), eta 75.000 € partida bat, Atargi ikastetxeko jostalekua berritzeko; 65.000 €, Hilerriarteko zelaia moldatzeko; 50.166 €, futbol-zelaiko harmaila eta hesirako (den-dena Nafarroako Gobernuak emanik); 50.000 €, plaza gorriak urbanizatzeko (Nafarroako Gobernuak 20.000 euro emanen ditu); eta 40.000 euro, erretiratuen elkartean inbertsioak egiteko.
Zor bizia 838.120,52 €-koa zen 2023an eta nabarmen jaitsi da, orain 564.157,59 €-koa baita, eta zorpetze maila ere txikiagoa, % 1,75 baita.
Kontuen Ganberak, bestalde, 2022ko kontuei dagokien txostena egin du eta hainbat gomendio egin ditu. Udalak esan du laster beteko dituela.

| DIRU-SARRERAK / INGRESOS | 2024 | 2023 | % ALDAKETA / % VARIACIÓN |
|---|---|---|---|
| 1 ZUZENEKO ZERGAK / IMP. DIRECTOS | 3.009.958,77 | 2.855.558,18 | +5,41 % |
| 2 ZEHARKAKO ZERGAK / IMP. INDIRECTOS | 315.000,00 | 429.060,83 | -26,58% % |
| 3 TASAK ETA BESTELAKO DIRU SARRERAK. / TASAS Y OTROS ING. | 1.027.973,25 | 1.008.478,00 | +1,93 % |
| 4 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK / TRANSFERENCIAS CTES. | 5.962.457,80 | 5.849.801,36 | +1,93 % |
| 5 ONDAREKO DIRU-SARREKAK / ING. PATRIMONIALES | 133.600,00 | 120.303,00 | 11,05 % |
| **GUZTIRA, ARRUNTAK / TOTAL CORRIENTES** | **10.448.989,82** | **10.263.201,37** | **+1,81 %** |
| 6 INBERTSIO ERREALEN BESTERENTZEA / ENAJENACIÓN INV.REALES | 0,00 | 0,00 | |
| 7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK / TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 473.366,00 | 330.000,00 | +43,44 % |
| 8 AKTIBOEN GOITI-BEHEITIAK / VARIACIÓN DE ACTIVOS | 0,00 | 0,00 | |
| 9 PASIBOEN GOITI-BEHEITIAK / VARIACIÓN DE PASIVOS | 2.500.000,00 | 2.560.000,00 | -2,34 % |
| **GUZTIRA, KAPITALA / TOTAL CAPITAL** | **2.973.366,00** | **2.890.000,00** | **+2,88 %** |
| **GUZTIRA, AURREKONTUA / TOTAL PRESUPUESTO** | **13.422.355,82** | **13.153.201,37** | **+2,05 %** |

| GASTUAK / GASTOS | 2024 | 2023 | % VARIACIÓN |
|---|---|---|---|
| 1 LANGILERIA GASTUAK / GASTOS DE PERSONAL | 5.798.766,45 | 5.697.735,62 | +5,11 % |
| 2 ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK EROSTEA / COMPRA DE BIENES Y SERVICIOS | 2.638.113,89 | 2.536.529,00 | +4,00 % |
| 3 FINANTZA-GASTUAK / GASTOS FINANCIEROS | 21.710,73 | 19.780,14 | +9,76 % |
| 4 TRANSFERENTZIA ARRUNTAK / TRANSFERENCIAS CORRIENTES | 1.336.375,86 | 1.321.903,89 | +1,09 % |
| **GUZTIRA, ARRUNTAK / TOTAL CORRIENTES** | **9.794.966,93** | **9.575.948,65** | **+2,29 %** |
| 6 INBERTSIO ERREALAK / INVERSIONES REALES | 3.464.516,00 | 3.296.001,18 | +5,11 % |
| 7 KAPITAL TRANSFERENTZIAK / TRANSFERENCIAS DE CAPITAL | 2.000,00 | 5.264,00 | -62,01 % |
| 8 AKTIBOEN GOITI-BEHEITIAK / VARIACIÓN DE ACTIVOS | 0,00 | 0,00 | |
| 9 PASIBOEN GOITI-BEHEITIAK / VARIACIÓN DE PASIVOS | 160.872,89 | 275.987,54 | -41,71 % |
| **GUZTIRA, KAPITALA / TOTAL CAPITAL** | **3.627.388,89** | **3.577.252,72** | **+1,40 %** |
| **GUZTIRA, AURREKONTUA / TOTAL PRESUPUESTO** | **13.422.355,82** | **13.153.201,37** | **+2,05 %** |

# El presupuesto de 2024 asciende a 13.422.355,82 euros

El Ayuntamiento aprobó el **27 de febrero** un presupuesto para el año 2024 de 13.422.355,82 € (11 votos a favor de EH Bildu, PSN y Zurekin-Contigo y 6 en contra de Atarrabia Geroa Bai, UPN y PP).
Las inversiones ascienden 3.464.516 €, lo que supone un 25% del importe total destinado a gastos, y el ahorro neto (diferencia entre el ahorro bruto y la carga financiera) sube un 19,91% respecto al año pasado y se sitúa en 493.150 €.
Entre las inversiones hay que destacar los 2.500.000 € para acometer las obras de las instalaciones deportivas, que serán sufragadas con un préstamo, y los 90.000 € destinados al a instalación del sistema de aerotermia en las piscinas, para cuya ejecución se ha solicitado una subvención de 45.000 € al IDAE.
Asimismo, destacan los 102.000 € para acometer la reordenación del tráfico de la localidad; los 90.000 € para llevar a cabo la pavimentación de la calle Ricardo Bel (subvencionados en su totalidad por el Gobierno de Navarra); una partida de 90.000 € para realizar distintas inversiones en los centros escolares (el Gobierno de Navarra aportará 60.000 €), junto con otra partida de 75.000 € para la reforma del patio del colegio Atargi; 65.000 € para la campa Entrecementerios; 50.166 € para la grada y el vallado del campo de fútbol (subvencionados en su totalidad por el Gobierno de Navarra); 50.000 € para la urbanización de las plazas rojas (con una aportación de 20.000 € por parte del Ejecutivo Foral); y 40.000 € para realizar inversiones en el centro de personas jubiladas.
La deuda viva, que en 2023 ascendía a 838.120,52 € baja considerablemente y se sitúa en 564.157,59 € y el nivel de endeudamiento también desciende y se queda en un 1,75%.
Por otro lado, la Cámara de Comptos ya ha elaborado el informe correspondiente a las cuentas de 2022 y ha realizado una serie de recomendaciones, que el consistorio llevará a cabo próximamente.

# Udal taldeen ekarpenak, aurrekontuan sartuak

# Aportaciones de los grupos municipales incorporadas al presupuesto

### ATARRABIA-GEROA BAI
- RICARDO BEL ZOLAKETA: 90.000 euro
- PLAZA GORRIAK BIRBERDATZEA: 50.000 euro

### PSN
- FUTBOL-ZELAIKO HARMAILA ETA HESIAK: 50.166 euro
- BETI ONAK FUTBOLA, MATERIALA ETA ESPAZIOA: 3.000 euro
- ANDREZAR KALEKO ABIADURA MOTELGAILUAK: 3.000 euro
- ADINEKOENDAKO GIMNASIOA, NAFARROAKO GORTEAK PLAZA: 7.000 euro

### CONTIGO ZUREKIN
- HAUR ETA GAZTE AHOLKULARITZA: 6.000 euro
- ETXEGABETZEEN AURKAKO AHOLKULARITZA: 2.000 euro
- DIRULAGUNTZA IZENDUNA YALA NAFARROA: 2.000 euro
- MEMORIA HISTORIKOKO LANAK: 3.000 euro

### PSN eta CONTIGO ZUREKIN
- JUBILOTEKA ZERBITZUA ZABALTZEA: 20.000 euro
- LAGUNTZA ADMINISTRAZIOA OGZ/BERDINTASUNA: 22.000 euro

### ATARRABIA-GEROA BAI
- PAVIMENTACIÓN RICARDO BEL: 90.000 euros
- REVERDECER PLAZAS ROJAS: 50.000 euros

### PSN
- GRADA Y VALLADO CAMPO DE FÚTBOL: 50.166 euros
- MATERIAL Y ESPACIO BETI ONAK FÚTBOL: 3.000 euros
- REDUCTORES DE VELOCIDAD C/ANDRESZAR: 3.000 euros
- GIMNASIO PARA PERSONAS MAYORES PZA. CORTES DE NAVARRA: 7.000 euros

### CONTIGO ZUREKIN
- ASESORÍA INFANTO-JUVENIL: 6.000 euros
- ASESORÍA ANTIDESAHUCIOS: 2.000 euros
- SUBVENCIÓN NOMINATIVA A YALA NAFARROA: 2.000 euros
- TRABAJOS DE MEMORIA HISTÓRICA: 3.000 euros

### PSN y CONTIGO ZUREKIN
- AMPLIACIÓN SERVICIO JUBILOTECA: 20.000 euros
- APOYO ADMINISTRATIVO SSB/IGUALDAD: 22.000 euros



## Amalurko haurren bisita Erraldoien Konpartsara

## Visita de Amalur a la Comparsa de gigantes

Martxoaren erdialdean, Amalur haur eskolako 2 eta 3 urteko ikasgelak (Sol, Sua eta Lurra) bisitan joan ziren erraldoien konpartsara, Kultur Etxean. Guztira, 64 haur, bi taldetan banaturik.

A mediados de marzo las clases de entre 2 y 3 años de la escuela infantil Amalur (Sol, Sua y Lurra) realizaron una visita a la Comparsa de gigantes en la Casa de Cultura. En total, 64 niñas y niños divididos en dos grupos.

## Aurreinsprіpzioak Amalur Haur Eskolan

## Preinscripciones en la Escuela infantil Amalur

Amalur haur eskolak **ate irekien jardunaldia** antolatu du **apirilaren 8**ko 16:00etarako ikastetxea eta zerbitzuak erakusteko.
Gainera, 2024-2025 ikasturterako **aurreinskripzioak apirilaren 10etik 24ra** izanen dira. Dena den Amalur eskolak oroitarazi du dagoenekoz eskolan matrikulatuta dauden eta datorren ikasturtean jarraituko duten haurren familiek ez dutela aurreinskripzioa egin beharko. Araudi berria argitaratzen denean, tarifak eguneratuko dira.

La Escuela infantil Amalur ha organizado una Jornada de **Puertas Abiertas** el **8 de abril** a las 16:00 para dar a conocer el centro y sus servicios.
Además, ya hay fecha para **preinscripciones** para el curso 2024-2025. Será **del 10 al 24 de abril** y desde Amalur quieren recordar que las familias de las niñas y niños que ya están matriculadas y que siguen el próximo curso no deberán realizar la preinscripción. En cuanto se publique la nueva normativa, se procederá a la actualización de las tarifas.





# OROKORRA | GENERAL

## Adinekoekiko udal estrategia

**Udalak estrategia bat diseinatzeko parte-hartze prozesua abiarazi du adinekoen ongizatean eta zaintzetan aurrera egiteko**

## Estrategia municipal con las personas mayores

**El Ayuntamiento ha puesto en marcha un proceso participativo para diseñar una Estrategia que permita avanzar en el bienestar y los cuidados de las personas que envejecen**



bizi on
ATARRABIAKO ADINEKOEKIN
CON LOS Y LAS MAYORES DE VILLAVA

**Har ezazu parte!**

- inkestetan
- tailer parte-hartzaileetan
- elkarrizketetan
- aurkezpen jardunaldietan

**¡Participa!**

- en las encuestas
- en los talleres participativos
- en las entrevistas
- en las jornadas de presentación

### FASEAK

**2024ko martxoa-ekaina.** Adinekoen gaineko diagnostikoa eta haien beharrak.
**2024ko iraila-urria.** Estrategia formulatzea.
**2025etik aitzina.** Estrategia ezarri, garatu eta haren jarraipena egitea.

### FASES

**Marzo-junio 2024.** Diagnóstico y necesidades de las personas mayores.
**Septiembre-octubre 2024.** Formulación de la Estrategia
**A partir de 2025.** Implantación, desarrollo y seguimiento de la Estrategia.

### TAILERRAK (Kultur Etxea)

**Apirilak 12, ostirala. 17:00 - 19:00.** Atarrabian bizitzea. Adinekoen etxebizitza, ekonomia eta kontsumoa aztergai.
**Apirilak 27, larunbata. 11:00 - 13:00.** Atarrabian ibiltzea. Herritar ibilaldia eta mapaketa, lurraldea, hirigintza, eremu publikoa, garraioa eta irisgarritasuna, ingurumena, etab. aztertzeko.
**Maiatzak 10, ostirala.17:00 - 19:00.** Atarrabian zahartzea. Adinekoendako erakunde, ekipamendu eta zerbitzuak aztergai.
**Maiatzak 24, ostirala. 17:00 - 19:00.** Atarrabian elkar bizitzea. Adinekoekiko informazioa, parte-hartzea, bizikidetza eta boluntarioak aztergai.
**2024ko apirila.** Zaintzea Atarrabian. Mendekotasuna eta/edo desgaitasun moderatua edo handia duten adinekoen zaintzaileendako tailerra.

### TALLERES (Casa de Cultura)

**Viernes 12 de abril. 17:00 - 19:00.** Habitar Villava. Análisis de la vivienda, la economía y el consumo de las personas mayores.
**Sábado 27 de abril. 11:00 - 13:00.** Recorrer Villava. Paseo ciudadano y mapeo para analizar el territorio, el urbanismo y el espacio público, el transporte y la accesibilidad, el medio ambiente, etc.
**Viernes 10 de mayo.17:00 - 19:00.** Envejecer en Villava. Análisis de las instituciones, los equipamientos y los servicios para las personas mayores.
**Viernes 24 de mayo. 17:00 - 19:00.** Convivir en Villava. Análisis de la información, la participación, la convivencia y el voluntariado con las personas mayores.
**Abril 2024.** Cuidar en Villava. Taller para cuidadoras y cuidadores de personas mayores con dependencia y/o discapacidad moderada o severa.

### INKESTAK

**Online galdetegiak:** : udal weba eta sare sozialak (QR).
**Paperezko galdetegiak:** udaletxea, erretiratuen elkartea, Kultur Etxea, Martiket, Gizarte Zerbitzuak eta Osasun Etxea.

### ENCUESTAS

**Cuestionarios online:** web y redes sociales del Ayuntamiento (QR).
**Cuestionarios en papel:** En el Ayuntamiento, Club de Personas Jubiladas, Casa de Cultura, Martiket, Servicios Sociales y Centro de Salud.

### DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA

**Ekainak 19, asteazkena, 19:00etan, Kultur Etxean**

### PRESENTACIÓN DEL DIAGNÓSTICO

**Miércoles 19 de junio a las 19:00 en la Casa de Cultura**

## Hobekuntzak ikastetxeetan eta argiterian

## Mejoras en colegios y en alumbrado

Udalak dirulaguntza eskatu dio Hezkuntza Departamentuari, Atargi ikastetxeko kanpo zurajeetan hobekuntzak egiteko eta Lorenzo Goicoako teilatuan diren itaxurak konpontzeko. Udala, gainera, harremanetan jarri da aseguru etxearekin, Atargiko sukaldeko termoaren balbula baten eztandak eragindako kalteak konpontzeko, urak lau ikasgela hartu baitituen.
Bestalde, bi dirulaguntza eskatu zaizkio Nafarroako Gobernuari eremu publikoko eta udal instalazioetako eraginkortasun energetikoa hobetzeko. Lehena, zehazki, Industria eta Trantsizio energetikoko eta digitaleko departamentuari, 2019an aldatu ez ziren argiak berritzeko. Bigarrena, berriz, Martiket kirol instalazioetako igerilekuko estalkiari dagokio. Udalak dirulaguntza eskatu baitio Nafarroako Gobernuko Industria, Energia eta S4 Proiektu estrategikoetako zuzendaritzari aerotermia sistema bat paratzeko. Zehazki, 65na kW-ko bi bero-ponpa jarriko dira ura berotzeko, egungo galdaren ordez.

El Ayuntamiento ha solicitado una subvención al Departamento de Educación para acometer mejoras en las carpinterías exteriores del colegio Atargi y eliminar las filtraciones de la cubierta de Lorenzo Goicoa. Además, el consistorio se ha puesto en contacto con el seguro para arreglar los desperfectos ocasionados por el reventón de una válvula del termo de la cocina de Atargi que causó la inundación de cuatro aulas.
Por otro lado, también se han pedido al Gobierno de Navarra otras dos subvenciones para mejorar la eficiencia energética de la vía pública y de las instalaciones municipales. La primera, dirigida al Departamento de Industria y Transición energética y digital, es para renovar el alumbrado público que quedó pendiente tras la modificación realizada en 2019. La segunda, en cambio, afecta a las piscinas cubiertas de las instalaciones deportivas de Martiket. El consistorio ha solicitado a la Dirección de Industria, Energía y Proyectos Estratégicos S4 del Gobierno de Navarra una subvención para implantar un sistema de aerotermia. El proyecto contempla la instalación de dos bombas de calor de 65 kW cada una para calentar el agua, que sustituirán a las actuales calderas.

# Esan EZ indarkeria ekonomikoari

## Emakume batzuek pairatzen duten indarkeria oso sotil horretaz ohartarazi du Udaltzaingoak

Genero indarkeriari aurrea hartu nahirik eta jendea haren gainean sentsibilizatzeko asmoz, udaltzaingoak ohartarazi nahi du arras era sotilean agertzen den indarkeria horretaz, emakume ehuneko handi batek pairatzen baitu: indarkeria ekonomikoa da. izan ere, emakumearen aurkako tratu txarrak dira, Istanbuleko hitzarmenean jasoak, diru-sarrerak eta baliabide ekonomikoen erabilera librea mugatzen baitira; ondorioz, tratu txarrak pairatu dituen emakumeak are irtenbide zailagoa dauka.
Indarkeria ekonomikoak eragiten die bai emakumeei bai haren seme-alabei, eta pairatu daiteke bai bikote-harremanean, bai harremana bukatu denean. Gainera, banantze ondorengo indarkeria ekonomikoa tratu txar psikologikoari jarraipena emateko modu bat da.

2018tik hona, Atarrabiak laguntza eta babesa eskaintzen dizkie genero indarkeriaren biktima izandako emakumeei, Genero Indarkeriazko kasuetarako Jarraipen Integralaren Sistemaren bitartez (VioGén Sistema). Gaiari buruzko argibideak, edozein ordutan udaltzaingoan
**608 97 30 30**

### 10 alarma seinale

- Zure bikotekideak zure gastuak eta/edo diru-sarrerak kontrolatzen ditu
- Erosten duzunaren berri ematera behartzen zaitu
- Dirua zigor gisa erabiltzen du eztabaidan ari zaretenean
- Dena berea dela uste du, gehiago irabazten duelako
- Dena berea dela uste du, zuk etxetik kanpo lan egiten ez duzulako eta berak bai.
- Zure gauzak kaltetzen ditu zu umiliatzeko edo gaizki sentiarazteko
- Zure ondasunak zure baimenik gabe erabiltzen ditu
- Ez dizu uzten kreditu-txartelik edo kontu korronterik izaten zure izenean
- Behartua zaude dirua eskatzera beste pertsona batzuei, zuk edo zure seme-alabek zerbait behar duzuenean.

### 10 señales de alarma

- Tu pareja controla tus gastos y/o ingresos
- Te obliga a rendir cuentas de lo que compras
- Utiliza el dinero como forma de castigo cuando discutís
- Considera que todo es suyo porque gana más
- Considera que todo es suyo porque tú no trabajas fuera de casa y él sí
- Daña pertenencias tuyas para humillarte o hacer que te sientas mal
- Dispone de tus bienes sin tu consentimiento
- No permite que tengas a tu nombre una tarjeta de crédito o cuenta corriente
- Te ves obligada a pedir prestado dinero a otras personas cuando tú o tus hijos necesitáis algo.

# Di NO a la violencia económica

## Policía local alerta sobre este tipo de violencia de género, muy sutil, que sufren algunas mujeres

En su afán por sensibilizar y prevenir la violencia de género, desde la Policía local quieren alertar sobre un tipo de violencia que se presenta de forma muy sutil y que sufre un elevado porcentaje de mujeres: la violencia económica. Es tu tipo de maltrato sobre la mujer reconocido en el convenio de Estambul, que se manifiesta a través de limitaciones encaminadas a controlar el ingreso y la libre disposición de recursos económicos y dificulta una salida a la mujer maltratada.
La violencia económica afecta tanto a mujeres como a sus hijas e hijos y puede padecerse tanto durante la relación de pareja como cuando se ha terminado. Además, la violencia económica tras la separación es un modo de continuar con un maltrato psicológico.

Desde 2018, Villava ofrece a las víctimas de violencia de género acompañamiento, apoyo y protección a través del Sistema de Seguimiento Integral en los casos de Violencia de Género (Sistema VioGén) Más información sobre el tema, a cualquier hora en el teléfono de Policía Local
**608 97 30 30**

# HHBk oso ongi bete du

Aurten ere, herritarrak Hartzeko Bulegoak oso ongi bete ditu Zerbitzu Kartan hartutako konpromisoak. Azken urteotan ohikoa izan den bezala, zerbitzua jaso aurreko itxaronaldia 0 da. Jasotako tratuari buruzko gogobetetze indizeari dagokionez, aurreko urteen oso antzekoa izan da 2023an: 9,13. Bestalde, kontsulta azkar eta eraginkortasunez bete ote den galdeturik, balorazioa 8,73 izan da eta zerbitzuaren iraupena 3,16 minutukoa. Zerbitzu elektronikoei dagokienez, 7ko nota eman zaie egoitza elektronikoa erabiltzeari eta informazioa bilatzeari, eta emandako informazioari buruzko balorazioa 7,4 izan da, bana beste; biak, beraz, helburuaren barnean (7).
Parametro bakar batek hobetu behar du pixka bat, jendeak parte hartzeko bideek, hain zuzen (6,85, eta helburua 7 da). Zerbitzuen Kartak ezarri du hiru parte-hartze bide izan behar direla herritarren eta udalaren artean (alkateak erantzuten du, iradokizun postontzia eta, gardentasun atarian informazioa eskatzea).

# La OAC cumple con nota

Un año más, la Oficina de Atención Ciudadana ha conseguido cumplir los compromisos adquiridos en su Carta de Servicios. Tal y como viene siendo habitual en los últimos años, el tiempo de espera antes de la prestación del servicio se sitúa en 0. En cuanto al índice de satisfacción por el trato recibido, en 2023 es de 9,13, muy similar a años anteriores. Por otro lado, la valoración sobre la rapidez y eficacia en la resolución de la consulta es 8,73 y la duración de la prestación del servicio se sitúa en 3,16 minutos. En cuanto a los servicios electrónicos, la facilidad de manejo y búsqueda de información de la sede electrónica ha obtenido un 7 y la valoración media respecto a la información suministrada es de un 7,4, ambos dentro del objetivo marcado (7). El único parámetro que debe mejorar un poco es el de los canales de participación (6,85 frente al 7 fijado). La Carta de Servicios fija que debe haber tres canales de participación entre ciudadanía y ayuntamiento (el alcalde responde, buzón de sugerencias y solicitud de información en el portal de transparencia) .



# Donejakue Bideko bideoak

Joan den otsailaren 23an, ostiralarekin, Donejakue Bidea sustatzeko bideo andana bat aurkeztu zen Kultur Etxean. Ekitaldian, besteak beste, Donejakue Bideko Udalerrien elkarteko burua, Joseba Asiron, eta elkartean sartutako udalerrien ordezkariak izan ziren, Mikel Oteiza Atarrabiako alkatea barne.

# Videos del Camino de Santiago

EL viernes 23 de febrero se presentó en la Casa de Cultura una serie de vídeos promocionales del Camino de Santiago. Asistieron al acto el presidente de la Asociación de Municipios de Camino de Santiago, Joseba Asiron, y representantes de los municipios asociados, incluido el alcalde de Villava, Mikel Oteiza.

# Trafikoa berrantolatzeko eta murrizteko plana

Duela urte askotatik hona, gero eta trafiko handiagoa dabil gure herrian. Gehienbat, kanpoko trafikoa da. Izan ere, iparra-hegoa eta hegoa-iparra trafikoaren zati handi batek Atarrabia gurutzatzen du eskualdeko ingurabideak erabili beharrean. Arazoa herritik kanpo dator, baina herri osoa ukitzen du. Horrela, zirkulazio dentsitaterik handiena Ezkaba, Bidaburua eta Serapio Huici karriketan dago, ibilbide hori egiten baitute iparraldeko ibilgailuek hegoaldeko herri, industrialde eta merkataritza guneetara joateko.

Azken urteotan, Udalak zenbait neurri hartu ditu arazoa arintzen saiatzeko. 2019an, Atarrabiako Mugikortasun Jasangarriko Plana onetsi zuen. Planaren arabera, Ezkaba, Bidaburua, Fermín Tirapu eta Serapio Huici karriketako kanpo trafikoa murriztu beharra zegoen. Horretarako, radarrak paratu ziren abiadura handia erregistratzeko eta ibilgailu kopurua zenbatzeko (10.000 ibilgailu egunean).

Egoerari behin betiko konponbidea eman nahian, Udalak plan bat diseinatu du kanpo trafikoa murrizteko, baina era berean, garraio publikoaren arintasuna eta irisgarritasuna hobetzeko, bai eta inguru horretakoa ere (Osasun Etxe berria bertan eraikiko baita). Halaber, berdeguneak zabalduko dira.



# Plan para reordenar y reducir el tráfico

Villava lleva años sufriendo un continuo aumento del tráfico externo debido a que gran parte del tráfico comarcal norte-sur y sur-norte atraviesa la localidad en lugar de utilizar las rondas comarcales. Se trata de un problema ajeno a Villava que, sin embargo, afecta a su población. La mayor densidad de tráfico se concentra en las calles Ezkaba, Bidaburua y Serapio Huici porque es el recorrido que siguen los vehículos de la zona norte que se dirigen a las localidades, polígonos industriales y centros comerciales de la zona sur.

A lo largo de los últimos años, el Ayuntamiento ha realizado varias actuaciones para intentar paliar estas afecciones. En 2019 elaboró el Plan de Movilidad Sostenible (PMUS) de Villava-Atarrabia que, entre otras actuaciones, recogía la reducción del tráfico externo en las calles Ezkaba, Bidaburua, Fermín Tirapu y Serapio Huici. Una de las medidas adoptadas fue la instalación de radares que, además de registrar la velocidad, también contabilizan el número de vehículos (10.000 vehículos al día).

Ante la necesidad de acabar con esta situación, el Ayuntamiento ha diseñado un plan para reducir el tráfico ajeno a Villava, pero también para mejorar la fluidez y accesibilidad del transporte público y de la zona (en previsión del nuevo Centro de Salud) e incrementar la superficie verde.

## Trafikoari eragiten dioten aldaketak iparra-hegoa norabidean

- Norabide aldaketa Ezkaba karrikan, Bidaburuako errotondarekiko elkargunetik aurrera.
- Trafikoa Larrainetako karrikatik Bidaburuako errotondara ez sartzeko, Atarrabian alta emanik ez dauden ibilgailuek ez dute errotondara iristerik izanen Ezkaba karrikatik.
- Debekua trafikoa zaintzeko kameren bidez kontrolatuko da.

## Cambios que afectan al flujo de tráfico en el sentido norte-sur

- Cambio de sentido de la calle Ezkaba a partir de la confluencia con la rotonda de Bidaburua.
- Para evitar que el tráfico acceda a la rotonda de Bidaburua por la calle Las Eras, se prohibirá el acceso a la rotonda desde la calle Ezkaba a los vehículos que no estén dados de alta en Villava.
- El control de esta prohibición se realizará a través de cámaras de vigilancia de tráfico.

## Beste jarduketa batzuk

- Ezkaba karrikako billabesen geralekua galtzadara eramanen da, espaloia libre egon dadin.
- Ezkaba karrikako aparkaleku berrietan zuhaitzak jarriko dira kaleari itzala emateko, beroirlarik ez sortzeko, Udalak klima-aldaketaren aurka darabilen borrokaren baitan.
- Aparkatzeko leku gehiago izanen dira desgaitasuna duten pertsonendako, eta egun diren zebra-pasabideak moldatuko dira.

## Otras actuaciones

- La parada de la villavesa de la calle Ezkaba se trasladará a la calzada, lo que permitirá dejar despejada la acera.
- Los nuevos aparcamientos de la calle Ezkaba contarán con arbolado para dar sombra a la calle para evitar islas de calor en consonancia con las acciones del Ayuntamiento en la lucha contra el cambio climático
- Aumento del número de plazas para personas con discapacidad y acondicionamiento de los pasos de cebra existentes.




## Udaletxe plazako karpa paratu da

Dagoeneko ezarria dago Udaletxe plazako karpa desmuntagarria. Oraingoz, karpa bere osoan egonen da irekia eta, beharren arabera, moduluren bat desmuntatzen ahalko da. Azken urteotan ohi denez, karpan hamaika kirol, gizarte eta kultur ekitaldi eginen dira, bai eta jai girokoak ere. 71.746,95 euroko kostua izan du.

## Instalada la carpa de la plaza consistorial

Ya está instalada la carpa desmontable de la plaza consistorial. Por el momento, la carpa permanecerá abierta en su totalidad y, en función de las necesidades, podrá desmontarse algún módulo. Como viene siendo habitual en los últimos años, esta carpa sirve para acoger diferentes encuentros sociales, deportivos y culturales, además de actos festivos. Su coste ha sido de 71.746,95 euros.

# EUSKARA | EUSKERA




## Euskarazko udalekuak | Campamentos de verano en euskera

Atarrabiako Udalak, Nafarroako beste udal batzuekin batera, euskarazko udalekuen eskaintza hedatuko du udal webean eta 2 diptikotan, herriko ikastetxeetan banatzeko, haur eta lehen hezkuntzako ikasleentzat, batetik, eta DBHkoentzat, bestetik.
Foiletoetan ageri da Nafarroako euskara zerbitzuek euskarazko udaleku guztiez bildutako informazioa, familiek aukera egin dezaten, gure inguruan dagoen eskaintza zabala baita zinez.
Azken urteotan bezala, familiek berek sartu beharko dute harremanetan udalekuak kudeatzen dituzten enpresekin, haurren izena udaleku honetan edo hartan emateko.
Udalekuek hainbat helburu dituzte, hala nola opor egun dibertigarriak gozatzea eta haurrek euskara eskolaz kanpoko inguruneetan erabiltzea. Era berean, jendea ezagutzea eta lagunak egitea, beste herri eta eskualde batzuetako haur eta gazteekin batera egonen baitira.

**Dirulaguntzak**
Behin udaldia iraganik, familiek udal dirulaguntzak jasotzeko aukera izanen dute. Deialdia hemendik gutxira argitaratuko da udal webean eta udaletxeko iragarki oholean, bai eta Herritarrak Hartzeko Bulegoan (HHB) ere. Eskabideak Udal Erregistro Orokorrean aurkezten diren hurrenkeraren arabera onartuko dira. Dirulaguntzak jasotzeko, haur eta gazteek Atarrabian edo Ezkabarten erroldaturik egon beharko dute.
Diruz laguntzen diren udalekuak oporraldietan egin beharko dira (ekainaren 20tik irailaren 10era). Gutxienez bost eguneko iraupena izanen dute eta, gehienez, astebetekoa.

El Ayuntamiento de Villava, conjuntamente con otros ayuntamientos navarros, va a difundir en la web municipal y en 2 dípticos que distribuirá desde los centros escolares la oferta de campamentos infantiles en euskera para alumnado de Educación Infantil y Primaria, por un lado, y para ESO, por otro.
Los folletos contienen la informamción recopilada por los servicios de euskera de Navarra sobre los diferentes campamentos en euskera que se organizan este verano, para que las familias puedan elegir entre la amplia oferta que existe en nuestro entorno.
Como en las últimas ediciones, serán las propias familias las que tengan que contactar con las empresas que gestionan los campamentos para apuntar a los niños y niñas en el destino elegido.
El objetivo de esta actividad es disfrutar de unos divertidos días de vacaciones a la vez que se refuerza la utilización del euskera en ámbitos diferentes a la escuela. De igual modo, estos niños y niñas ampliarán su entorno de amistades ya que convivirán con jóvenes de otras zonas.

**Ayudas económicas**
Finalizada la campaña, las familias podrán optar a ayudas económicas municipales. Esta convocatoria se podrá consultar en breve tanto en la página web como en el tablón de anuncios del Ayuntamiento y en la Oficina de Atención Ciudadana (OAC). Las solicitudes se aceptarán por riguroso orden de presentación en el Registro General del Ayuntamiento. Para beneficiarse de estas ayudas, el alumnado deberá estar empadronado en Villava o Ezkabarte.
Los campamentos subvencionables tendrán que desarrollarse en período vacacional (20 de junio al 10 de septiembre) y no podrán tener una duración inferior a cinco días ni superior a una semana.







## Atarrabia, buru-belarri euskararen aldeko lasterketan | Villava se involucró en la carrera por el euskera

Euskararen aldeko lasterketa martxoaren 16an arratsaldez iritsi zen gure herrira, larunbatarekin, Burlata aldetik Ermitaldea karrikan barna, 16:54 aldean, hiru kilometro eginda (509., 510. eta 511., hain zuzen ere). Pedro de Atarrabia, Irigoien, Nagusia eta Fermin Tirapu karrikak zeharkatu ondoren, Iruñera jo zuen Txantrean zehar. Lekukoa udal ordezkariek eta Korrika antolatzen duten batzordeko kideek eraman zuten.
Hilaren 15ean Korrika Txikia egin zen eta, hilaren 16an bertan, hainbat ekitaldi, hala nola dianak, dantzak Udaletxe plazan Idoskia eta Paz de Ziganda taldeen eskutik, abesbatzak, eta txarangak girotutako karrikadantza herriko karriketan barna.

La carrera por el euskera llegó a Villava la tarde del sábado 16 de marzo (kilómetros 509, 510 y 511) procedente de Burlada por la calle Ermitaldea aproximadamente a las 16:54. Tras atravesar las calles Pedro de Atarrabia, Irigoien, Mayor y Fermin Tirapu, se dirigió hacia Pamplona por la Txantrea. El testigo lo portaron representantes del Ayuntamiento y de la comisión organizadora de la Korrika.
La tarde del 15 fue la Korrika Txiki y el mismo día 16 hubo dianas, en la plaza del Ayuntamiento danzas a cargo de los grupos Idoskia y Paz de Ziganda y coros, y una kalejira con txaranga por las calles de la localidad.

# BERDINTASUNA | IGUALDAD

## M-8 Emakumearen Nazioarteko Eguna

## 8-M Día Internacional de las Mujeres

Atarrabiako bizilagun aunitzek parte hartu zuten hilaren 8ko arratsaldeko manifestazioan Iruñean, mugimendu feministak deiturik. Atarrabian, berriz, martxoaren 3an (igandea) hasi ziren Martxoaren 8a ospatzen, Txalo Produkzioak taldeak taularatutako "Los monólogos de la vagina" lanaren bidez. Antzezlan garaikiderik antzeztuenetakoa da. **Martxoaren 7an**, berriz, Iluna Producciones taldeak poesia feministaren ikuskizun antzeztua eman zuen. Eta hilaren 20an, "Zinemako emakume heroiak" programazioaren barnean, "En un muelle de Normandía" filma eman zen, Emmanuel Carrèrek zuzendutakoa eta Juliette Binochèk parte hartutakoa.

Muchas vecinas de Villava se sumaron a la convocatoria de manifestación en Pamplona del Movimiento Feminista de la tarde del día 8. En Villava, la celebración del 8 de marzo comenzó el **domingo 3 de marzo** con la obra de teatro de Txalo Produkzioak "Los monólogos de la vagina", uno de los textos contemporáneos más representados.
El **jueves 7 de marzo** Iluna Producciones ofreció un espectáculo teatralizado de poesía feminista. Y el miércoles 20, dentro de la programamción "Heroinas de cine", se proyectó la película "En un muelle de Normandía", de Emmanuel Carrère con Juliette Binochè.



## Berdintasuna eraikitzen duten maskulinitateak lantzeko tailerra | Taller de masculinidades constructoras de igualdad

M-8aren baitan, halaber, **maskulinitateak lantzeko tailerra** egiten ari da 16 urtetik gorako gizonentzat, Berdintasun Zerbitzuak antolaturik, eta Gazteria alorrak, Gazteria Kontseiluak eta Atarrabiako Mutilek lagundurik. Sei saio guztira, beste hainbat ostegunetan, otsail, martxo eta apirilean.
Jardueraren helburua da parte-hartzaileak ohartu daitezela beren bizitzen inguruetan dagoen desberdintasunaz (familia, bikote bizitza, lagunartea, lana, koadrila, gizarte harremanak, elkarteak...) eta haietan esku hartu dezatela berdintasun handiagoko bizimoldea ahalbidetzeko.

También en el marco del 8-M, el Servicio de Igualdad, en colaboración con el de Juventud, el Consejo de la Juventud y Atarrabiako Mutilak, ha organizado un **Taller de masculinidades** dirigido a hombres mayores de 16 años que se está desarrollando en seis seis sesiones repartidas en otros tantos jueves de febrero, marzo y abril.
La actividad tiene como objetivo que los participantes sean más conscientes de la desigualdad en sus entornos vitales (familias, pareja, amistades, trabajo, cuadrilla, relaciones sociales, asociacionismo...) y puedan intervenir en ellos para posibilitar una vida más igualitaria.

### Helburuak

- Parte-hartzaileak berdintasunezko maskulinitateez sentsibilizatzea eta, haien bidez, inguruko jendea ere bai
- Sexu-genero sistemaren bidez gertatzen den sozializazio desberdinduaz sentsibilizatzea.
- Gizonak baldintzatzen dituzten eta emakumeak zanpatzeko sistemari eusten dioten rol sexistez kontzientzia hartzea.
- Berdintasunezko maskulinitate ereduak eskaintzea aukera berdintasuna bermatzeko.

### Objetivos

- Sensibilizar a los participantes y a través de ellos a sus entornos más cercanos respecto a las masculinidades igualitarias.
- Sensibilizar sobre la socialización diferenciada mediante el sistema sexo-género.
- Tomar conciencia de los roles sexistas que condicionan a los hombres y sostienen un sistema opresor hacia las mujeres.
- Ofrecer modelos de masculinidad igualitaria que garanticen igualdad de oportunidades.

### Edukiak

- Sexu-genero sistema.
- Maskulinitate hegemonikoa.
- Maskulinitate hegemonikoak, alternatibak: berdintasunezko maskulinitateak.
- Maskulinitatearen pribilegioak.
- Baldintzatze maskulinoa eta haren ondorioak.
- Emakumeen aurkako indarkeria.

### Contenidos

- Sistema sexo-género.
- Masculinidad hegemónica.
- Alternativas a la masculinidad hegemónica: las masculinidades igualitarias.
- Privilegios de la masculinidad.
- Condicionamiento masculino y sus consecuencias.
- Violencia contra las mujeres.

## Genero indarkeriari aurrea hartzeko programa

**Hainbat saio eginen dira Paz de Zigandako DBHko 4. mailako ikasleekin eta La Presentación ikastetxeko 3. mailakoekin**

## Programa de prevención de violencia de género

**Se han programado sesiones con alumnado de 4º de ESO en Paz de Ziganda y de 3º en La Presentación**

Paz de Ziganda ikastolako DBHko 4. mailako ikasleek ikastetxean bertan parte hartuko dute genero indarkeriari aurrea hartzeko programan; guztira, lau saio izanen dira, Galkidea psikologia eta familia-laguntza zentroaren eskutik. La Presentación ikastetxeko saioak, berriz, martxoan egin ziren DBHko. 3. mailako ikasleekin.
Helburua da genero indarkeriazko egoerei aurrea hartzea nerabe bikoteen artean, behar diren tresnak emanez beren bikote harremana askatasunez eraiki dezaten, erabakiak askatasunez har ditzaten, eta askatasunez ere hausnartu eta baloratu dezaten zer eginkizun dituen bikotekide bakoitzak harreman horretan. PIBE esaten zaion metodologia erabiltzen da saioetan, aktoreek bikote harremanetan gertatu ohi diren egoeren gainean egiten dituzten antzezpenean oinarritua, ikasleak portaera horiekin identifikatzeko eta haien gainean gogoeta egiteko.

El alumnado de 4º de ESO de la Ikastola Paz de Ziganda asistirá en abril en el propio centro a cuatro sesiones del Programa de Prevención de Violencia de Género de la mano del centro de psicología y acompañamiento familiar Galkidea. En el colegio La Presentación fue en marzo con alumnado de 3º de ESO.
El objetivo del programa es prevenir situaciones de violencia de género entre parejas de adolescentes, facilitando a las y los jóvenes herramientas para actuar libremente en la construcción de su relación de pareja, en la toma de decisiones y en la reflexión y valoración de los papeles que cada miembro de la pareja asume. La metodología utilizada en las sesiones será la denominada PIBE, basada en la escenificación por parte de actores y actrices de situaciones comunes en las relaciones de pareja, con el objetivo de que el alumnado se sienta identificado con esos comportamientos y reflexione sobre ellos.

# "Irakurri Betaurreko Moreekin" | "Lee con Gafas Violeta"

**Hemen da berriro Irakurketa Taldea, Berdintasun Zerbitzuak bultzatua, liburutegi publikoarekin elkarlanean, eta Nerea Aguado olerkari, gidoigile eta berdintasun arloko adituak dinamizatua**

**Vuelve el Club de Lectura impulsado por el Servicio de Igualdad con la colaboración de la biblioteca pública y que dinamiza la poeta, guionista y especialista en igualdad Nerea Aguado**

*Zenbat aldiz ez ote dugun esan "jakin izan banu orain dakidana"? Nola irakurtzen ditugu liburuak? Zer ezagutza, bizipen eta aurreiritzi ekartzen ditugu irakurketara?* Programaren helburu nagusia da herritarrek, oro har, eta emakumeek, bereziki, feminismoarekin lotutako gaiak lantzea, literaturaren bidez eta denon artean gogoeta eginez. Saioetan estiloaren, gaiaren eta generoaren ikuspegitik eztabaidatu eta aztertzen dira testuak. Izan ere, Mary Shelleyren "Frankenstein" eleberriak, Ana Penyasen "Estamos todas bien" komikiak eta Toni Morrison Oscar saridunaren "Beloved" lanak kontzeptu teorikoei buruzko gogoeta eragiten dute eta egokiak dira halakoak barneratzeko. Zama mentala, Estatu Batuetako segregazio legeak, zahartzaroa eta emakumea, genero indarkeria, zientzia fikzioa edota LGTBIQ+ jendeak pairatzen duen bazterkeria. Irakurketa taldeak hurbiltasunetik eta egunerokotasunetik lantzen ditu gaiak, guk munduan dugun lekutik ulertzeko eta birpentsatzeko. Saioak ostegun batez egiten dira hilean behin, 19:00etatik 21:00etara.




*¿Cuántas veces hemos dicho: "si hubiera sabido lo que ahora sé"? ¿Cómo leemos los libros? ¿Qué conocimientos, vivencias y prejuicios traemos a la lectura?* El objetivo de este programa es que la ciudadanía en general, y las mujeres en particular, traten temas relacionados con el feminismo a través de la literatura y la reflexión compartida. En las sesiones se debaten y analizan los textos desde el punto de vista del estilo, el tema y el género. Lecturas como "Frankenstein" de Mary Shelley, el cómic "Estamos todas bien" de Ana Penyas o "Beloved" de la nobel Toni Morrison mueven a la reflexión y la interiorización de conceptos teóricos. Desde la carga mental a las leyes segregacionistas de EEUU, pasando por el concepto de vejez en las mujeres, la violencia de género, la ciencia ficción o la discriminación de la población LGTBIQ+. El club aborda los temas desde la cercanía y lo cotidiano para entenderlos y repensarlos desde nuestro lugar en el mundo. Las sesiones son un jueves al mes de 19:00 a 21:00.

## Berdintasunezko proiektuetarako laguntzak

Udala aurtengo proiektuak baloratzen ari da. Atarrabiako emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna 2024an bultzatzen duten ekimenak diruz laguntzeko proiektuak dira, hain zuzen.

## Ayudas a proyectos igualitarios

El Ayuntamiento se encuentra en fase de valoración de los proyectos que optan a las subvenciones a iniciativas que impulsen en 2024 en Villava la igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres de Villava.

## TAXI-BONUA

### Laguntzak desgaitasuna eta mugimen murriztua duten pertsonak garraiatzeko

Laguntzak Atarrabian erroldatuta daudenentzat dira eta ACODIFNA elkarteak kudeatzen ditu, hau da, Desgaitasun Fisikoa duten Nafarroako Pertsonen Koordinaziorako Elkarteak, Udalak hitzarmena egina baitu harekin. Banakako laguntza da taxia garraiobide egokitu gisa erabiltzeko, % 33ko edo hortik gorako desgaitasuna duten pertsonentzat, garraio kolektiboa ezin erabili dutelako. Beste baldintza bat ere badago, hots, pertsonek beren ibilgailu egokitua ez edukitzea, eta diru-sarrera jakin batzuk ez gainditzea.
Eskabidea eta behar diren agiriak udalean aurkeztu behar dira urriaren 15a baino lehen.
Oinarri guztiak **www.villava.es**

## BONOTAXI

### Ayudas al transporte de personas con discapacidad y movilidad reducida

La gestión de estas ayudas municipales para personas empadronadas en Villava se realiza a través de ACODIFNA (Asociación Coordinadora de Personas con Discapacidad Física de Navarra), con la que el Ayuntamiento suscribe un convenio. Es una ayuda individual para la utilización del taxi como medio de transporte adaptado para personas afectadas por una discapacidad que en grado igual o superior al 33% le dificulte gravemente el acceso a transporte colectivo. Otra de las condiciones es no poseer vehículo propio adaptado, así como no superar determinados ingresos familiares.
La solicitud, con la documentación exigida, hay que presentarla en el Ayuntamiento antes del 15 de octubre.
Bases completas en **www.villava.es**

## Hazkuntza tailerrak

## Talleres de crianza

**0-1 urteko haurrak ardurapean dituzten gurasoentzat**

**Dirigidos a padres y madres con menores a cargo de 0 a 1 año**

Jarduera hau Atarrabiako haur sarearen ekintzen artean dago. Sare-kide dira OGZ, Osasun Etxea eta Amalur Haur eskola. Tailerra, doakoa, 7 saiotan emanen da, 11:00etatik 12:30era, maiatzean, Kultur Etxeko 9. gelan. Izenematea, apirilaren 8tik 19ra (948 012 012).

Esta actividad se enmarca en las acciones de la red de infancia de Villava, en la que participan SSB, Centro de Salud y Amalur Haur eskola. El taller, gratuito, se impartirá en 7 sesiones de 11:00 a 12:30 a lo largo del mes de mayo en la sala 9 de la Casa de Cultura. Las inscripciones, del 8 al 19 de abril (948 012 012).

- **05/06:** Amatasunaren/aitatasunaren bizipena
- **05/08:** Lotura afektiboa
- **05/13:** Helduaren presentzia, errespetuzko hazkuntza positibo batetik
- **05/15:** Jolasa, mugimendua eta autonomia
- **05/20:** Elikadura 0-1 etapan: teoriatik praktikara
- **05/22:** Sexualitatez solasean
- **05/27:** Lehen laguntzak.

- **06/05:** Vivencia de la maternidad/paternidad
- **08/05:** Vinculación afectiva
- **13/05:** Presencia del adulto desde una crianza positiva y respetuosa
- **15/05:** Juego, movimiento y autonomía
- **20/05:** Alimentación en la etapa 0-1: de la teoría a la práctica
- **22/05:** Hablando de sexualidad
- **27/05:** Primeros auxilios




# Ekintza Plana, azken txanpan

# El Plan de Acción, en su recta final

Herritarrek parte hartzeko hainbat foro egin dira martxoan zehar, Agenda 2030 zer eta zertarako den jendeari azaltzeko. Tresna horren bitartez, izan ere, herritarrek ekintzak proposatzeko aukera dute jasangarritasunaren arloan, udala prestatzen ari den Ekintza Planean sartzeko.
Martxoaren 5ean Kultur Etxean egindako informaziobileraren ondotik eta herritarrek parte hartzeko foroak martxoaren 7an, 12an eta 14an egin eta gero, martxoaren 21ean Tokiko Ekintza Planaren zirriborroa aurkeztu zen.
Aurreikuspenen arabera, Udalak apirilean bertan onetsiko du plana eta, behin oniritzia emanik, jarraipen batzordea osatuko da.

A lo largo del mes de marzo se han llevado a cabo diversos foros de participación para explicar a la población la utilidad y objetivos de la Agenda 2030, una herramienta que ofrece a la ciudadanía la posibilidad de proponer acciones en materia de sostenibilidad para que se incluyan en el Plan de Acción que está elaborando el consistorio.
Tras la primera reunión informativa realizada el 5 de marzo en la Casa de Cultura y los posteriores foros de participación celebrados los días 7, 12 y 14 de marzo, el 21 de marzo tuvo lugar la presentación del borrador del Plan de Acción Local.
El Ayuntamiento tiene previsto aprobar el PAL en el mes de abril y, con el visto bueno encima de la mesa, crear una comisión de seguimiento.

## Herritarrek *on line* parte hartzeko tresna berria

## Nueva herramienta ciudadana de participación *on line*

Atarrabiako Udalak herritar plataforma bat gaituko du, Nafarroako Gobernuak diseinatua, jendeak online parte hartzeko bidea hobetzeko eta errazteko. Izan ere, tresnari esker, herritarrek kontsultak egiteko aukera izanen dute, bai eta udal jarduera eta proiektuak ikusteko parada ere, gardentasun handiagoa eskaintze aldera.
Orain, udal langile batzuek Nafarroako Gobernuaren prestakuntza jasoko dute plataforma ongi kudeatzen eta erabiltzen ikasteko.
Laster, xehetasun guztien berri emanen da ohiko komunikazio bideen bitartez (udal weba eta sare sozialak).

El Ayuntamiento de Villava va a habilitar una plataforma ciudadana diseñada por el Gobierno de Navarra para mejorar y hacer más accesible el espacio de participación on line. Esta herramienta permitirá realizar consultas a la ciudadanía y abrir y visibilizar la actividad y proyectos municipales con el fin de ofrecer una mayor transparencia.
Personal del Ayuntamiento recibirá formación del Gobierno de Navarra para una correcta gestión y uso de la plataforma.
Próximamente se informará de todos los detalles a través de los habituales canales de comunicación (web municipal y redes sociales).



# Ultzama ibaia garbitzeko auzolana

# Auzolan para limpiar el río Ultzama

Joan den martxoaren 23an, Ultzama ibaiaren udaberriko auzolana egin zen, Udalak antolaturik, San Andres Eskaut Taldeko boluntarioekin batera eta Iruñerriko Mankomunitatearekin elkarlanean.
Goiz osoan, parte-hartzaileak gogoz aritu ziren ibaia eta ibai bazterrak garbitzen, ibaiertzak hondakinez beterik baitzeuden, negu aldeko uhaldien ondorioz (plastikoak, baratzeko materiala, ureztalur txikietako materialak).

El pasado 23 de marzo tuvo lugar el auzolan de primavera del río Ultzama, organizado por el Ayuntamiento, junto a las voluntarias y voluntarios del grupo Scout San Andrés y con la colaboración de Mancomunidad de la Comarca de Pamplona.
Durante toda la mañana, las/os asistentes trabajaron intensamente para limpiar el cauce y las orillas del río que este año, tras las crecidas registradas durante el invierno, acumulaban numerosos residuos (plásticos, material de huerta o de pequeños regadíos familiares).

# 52 zuhaitz landatu dira

Udalak 52 **zuhaitz landatu** ditu. 6, Udaletxe plazan; 3, Iruñeko etorbidean; 6, Arga karrikan; 5, Kaskalleta karrikan; 2, Miguel Induráin plazan; 14, Oianpea karrikan; 5, Karrobide karrikan, eta 3, Atargi ikastetxean. Horrez gain, beste 8 zuhaitz ere, aurretik zeuden hutsuneak birjartzeko. Bestalde, zuhaitz naturalizazioa egiten ari da Serapio Huici biribilgunean, Aldapa karrikan eta Nafarroako Gorteak plazan. Aurretik, antzeko lanak egin dira Udaletxe plazan eta haur eskolaren inguruetan.
Zuhaitz berriak hainbat arrazoik kalteturiko edo ihartutako aleen ordez jarri dira. **Naturalizazioa**ri dagokionez, aspaldian ari da Udala horrelako lanak egiten eta emaitzak on-onak dira. Izan ere, itzal azalera handiagoa lortze aldera, zuhaitzak ez dira hainbestean inausten, adaburu handiagoa izan dezaten eta zainketa lan txikiagoak egiteko.
**Helburua da zoladura berdegune bihurtzea eta esparru publikoetan itzala sortzea**, herritarrek udako hilabeterik beroenetan erabili eta goza ditzaten.
Zuhaitz berriak landatzeko eta egungoak naturalizatzeko lanak "Berdea" ekimenaren baitan daude, Atarrabiak abiarazia, jasangarritasuna sustatzeko eta herriko bazterrak klima-aldaketara egokitzeko.

# Plantación de 52 nuevos árboles





El Ayuntamiento está llevando a cabo la **plantación** de 52 nuevos árboles (6 en la Plaza Consistorial, 3 en la avenida de Pamplona, 6 en la calle Arga, 5 en la calle Kaskalleta, 2 en la plaza Miguel Induráin, 14 en la calle Oiampea, 5 en la calle Karrobide, 3 en el colegio público Atargi) y otros 8 árboles de reposición de faltas anteriores. Por otra parte, se está llevando a cabo la **naturalización** de arbolado en la rotonda Serapio Huici, en la calle Aldapa y en la plaza Cortes de Navarra. Esta última actuación se suma a la que ya se realizó en la plaza del Ayuntamiento y en el entorno de la escuela infantil.
Los nuevos árboles sustituirán a ejemplares que, por diversas circunstancias, están dañados o secos. En cuanto a la naturalización, es una práctica que el consistorio lleva aplicando en los últimos años con muy buenos resultados. Para conseguir una mayor superficie de sombra, se está reduciendo la poda de los árboles para dejar que su copa sea más grande y necesite menos cuidados.
El objetivo de estas campañas es **transformar el pavimento en zonas verdes y convertir los espacios públicos en áreas de sombra** que permitan a la ciudadanía su disfrute en los meses más cálidos del año.
La plantación de nuevo arbolado y la naturalización del existente se enmarca en el proyecto Berdea, una apuesta de Villava para promover la sostenibilidad y adaptar sus espacios al cambio climático.

## Usoak eta katuak

Herriko osasun eta higiene egoerari euste aldera, Udalak kontrolak egin ohi ditu usoak eta erregistratu gabeko katuak ez ugaritzeko, gaitzak, zikinkeria eta bestelakoak eragiten baitituzte. 2023an, guztira, 415 uso harrapatu ziren.
Katuei dagokienez, berriz, Aranzadi Katuak elkarteak 23 katu eta 9 katakume harrapatu eta adopzioan eman ditu.

## Palomas y gatos

Con el objetivo de mantener el estado higiénico-sanitario de la localidad, el Ayuntamiento suele realizar controles para evitar que la proliferación de palomas y gatos no registrados conlleve efectos no deseados, como enfermedades, suciedad, etc. En 2023 la cifra de palomas capturadas ascendió a 415 ejemplares.
En cuanto a los gatos, la asociación Aranzadi Katuak ha capturado 23 gatos y 9 cachorros, que se han dado en adopción.

# Atarrabiak Lorategi Botanikoaren Eguna ospatuko du apirilaren 20an

Udalak Lorategi Botanikoaren Eguna ospatuko du heldu den apirilaren 20an, larunbatarekin. Ezkaba mendiko 300 landare-espezie autoktonoetako bat babestu duten hainbat erakunde agertuko dira, eta botanikan aditua den pertsona batek natur inguru horren ezaugarri nagusiak azalduko ditu, bai eta landaretzaren aberastasun handia ere. Horrez gain, bertako ekosistemaren inguruko tailerra eginen da.
Iruñerriko Mankomunitatearen ordezkariek ere parte hartuko dute. Izan ere, Udalak Mankomunitatea gonbidatu du, lekua ezagutu dezan eta bi entitateen arteko lankidetzari begira, ingurua mantentzeko eta zaintzeko. Asmoa baita inguru hori Ezkaba Eskualdeko Parke berrian sartzea, baliabide hezigarri egokia baita gure landaretza ondarearen gaineko zabalkundea egiteko.



# Villava celebrará el Día del Jardín Botánico el 20 de abril

El Ayuntamiento va a celebrar el Día del Jardín Botánico el próximo sábado 20 de abril. Durante la jornada, en la que estarán presentes varias entidades que han apadrinado una de las 300 especies de plantas autóctonas del monte Ezkaba, un experto en botánica explicará las principales características de este enclave natural y la gran riqueza de su flora. Además, se organizará un taller en torno a este ecosistema.
En el acto también estará presente una representación de la Mancomunidad de la Comarca de Pamplona. El Ayuntamiento ha invitado a la MCP para que conozca el espacio y pueda establecerse una colaboración entre ambas entidades para su mantenimiento y cuidado. La idea es que este paraje forme parte del nuevo Parque Comarcal Ezkaba como recurso educativo y divulgativo de nuestro patrimonio vegetal.

# M-17 LGTBIfobiaren kontrako Nazioarteko Eguna

**Udaleko Kultura Zerbitzuak bat egin du LGTBIfobiaren kontrako Nazioarteko Egunarekin (maiatzak 17), film bat eta antzezlan bat antolatuz.**

# 17-M Día Internacional contra la LGTBIfobia

**El servicio municipal de Cultura se suma a la celebración del Día Internacional contra la LGTBIfobia (17 de mayo) programando una película y una obra de teatro**



**ZINE-FORUMA / CINEFORUM**
**Maiatzak 15, asteazkena / 15 de mayo, miércoles 19:00**
**"Rara" PEPA SAN MARTÍN**
**Kultur Etxeko antzokia / Teatro de la Casa de Cultura**
**Sarrera librea (ez dago 7 urtetik beherakoentzat) / Entrada libre (no recomendada para menores de 7 años)**

Sarak ikasten du, mutil bat du gustuko, lagunekin festa egitera joan nahi du eta ahizpa Catarekin egotea gustatzen zaio. Bizitza, ordea, errotik aldatuko zaio, aitarekin amarekiko bizitzaz hitz egiten duenean. Nerabe kasketak ondorio aunitz izanen ditu. Txileko epaile andere baten kasuan inspiratua da, alaben gaineko jagoletza kendu baitzioten emakume batekin bizi zelako.

Sara va a clase, le gusta un chico, quiere ir de fiesta con sus amigas, le gusta estar con su hermana Cata. Su vida dará un giro radical al hablar con su padre sobre la vida con su madre. La pataleta de adolescente tendrá muchas consecuencias. Inspirada en el caso de una jueza chilena a quien le quitaron la custodia de sus hijas por vivir con una mujer.



**ANTZERKIA / TEATRO**
**Maiatzak 17, ostirala / 17 de mayo, viernes 20:00 4 €**
**"Liberarse. Reflexiones de armario" LA PIEL PRODUCCIONES**
**Kultur Etxeko antzokia / Teatro de la Casa de Cultura**

Sexu-dibertsitatea umorez eta errespetuz lantzen duen antzezpen komikoa da. Sexu askatasunaren eta identitatearen aldeko aldarria. Aire freskoa inoiz beren izaeran itxita egondako, dauden eta egonen diren pertsona guztientzat, gizartearen onarpena bilatu nahirik eta egunez egun sufritu zuten guztien alde borrokan; adibidez, Federico García Lorcaren alde.

Es una representación cómica que trata la diversidad sexual desde el humor y el respeto. Una oda a la libertad sexual y a la identidad. Un soplo de aire fresco para todas las personas que alguna vez estuvieron, están o estarán encerradas en su propio ser, buscando la aceptación de la sociedad y luchando día a día por todos los que sufrieron, como por ejemplo, Federico García Lorca.

## Kultur bidaia Guardiara eta Gesaltza Añanako Gatz Haranera

**EKAINAK 8, LARUNBATA. INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA, KULTUR ETXEAN.** **Guardian**, hainbat gauza erakutsiko dira, hala nola Erdi Aroko trazatu peto-petoa, harresi hondarrak, atariak, jauretxe armarridunak eta Erregeen Andre Maria elizako atari polikromatua. Halaber, ardoaren arkitektura esaten zaiona, herriaren inguruan, hau da, bi upategi: Marqués de Riscal (Frank Ghery) eta Ysios (Calatrava).
**Añanako Gatz Harana** gatzaren paisaia ikusgarria da, kultura eta natura uztarturik, duela 7.000 urtetik gorakoa, Gatzagak lehengoratzeko eta haien balioa nabarmentzeko prozesua ezagutuko dugu eta atari zabaleko Spa Gazia gozatu. Bidaiaren prezioa 65 euro da buruko. Prezioan barne daude autobusa, Guardiako eta Gatz Haranako bisita gidatuak, sarrerak eta jatetxeko bazkaria.

## Viaje cultural a Laguardia y valle Salado de Salinas de Añana

**SÁBADO 8 DE JUNIO. INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES, EN LA CASA DE CULTURA.**
En la visita a **Laguardia** se podrá conocer su modélico trazado medieval con sus restos de murallas, puertas de acceso, sus casas-palacio blasonadas y el pórtico policromado de la iglesia de Santa María de los Reyes. También los exteriores de la llamada arquitectura del vino, las bodegas Marqués de Riscal (Frank Ghery) e Ysios (Calatrava).



El **valle Salado de Añana** es un paisaje cultural y natural de la sal con más de 7.000 años, en nuestra visita podremos conocer el proceso de recuperación y puesta en valor de las salinas y disfrutar del Spa Salino al aire libre. El precio del viaje es de 65 euros por persona. En el precio está incluido: autobús, visita guiada a Laguardia y Valle Salado, entradas y comida en restaurante.




## LIBURUTEGIKO NOBEDADEAK | NOVEDADES BIBLIOTECA

### HELDUAK / ADULTOS

- SANTIAGO, Mikel. **El hijo olvidado.** Barcelona: Ediciones B, 2024. 575 p.
- BERASAIN, Kristina. **Sahara, herri bat erresitentzian**. Aduna, Guipuzcoa: Elkar, 2023. 232 p.
- NAVARRO, Julia. **Una historia compartida.** Barcelona: Plaza y Janes, 2023. 406 p.

### HAURRAK-GAZTEAK / INFANTIL-JUVENIL

- MARTÍN VIDAL, Beatriz. **Enigmas**. Barcelona: Thule, 2023. 50 p.
- SIERRA I FABRA, Jordi. **A ze misterioa... txokolatezko pastela desagertu da.** Donostia: Erein, 2023. 95 p.
- ROMÁN, José Carlos. **Nuestro mejor regalo**. Pozuelo de Alarcón (Madrid): Cuento de Luz,2023 32 p.

**Kontsultatu berritasun gehiago hemen / Consulta más novedades en: www.navarra.es: Bibliotecas públicas / Liburutegi publikoa etxean**

# DNAk “Luz Negra” ekarriko du Atarrabiara, Dinamo Danza-k ondua

DNA '24 FESTIVALDNA.COM

# El DNA trae a Villava “Luz Negra” de Dinamo Danza

## DNA Kultura Zuzendaritza Nagusia – Vianako Printzea Erakundearen dantza garaikideko programa da



## DNA es el programa de Danza Contemporánea de la Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

**APIRILAK 28, IGANDEA, 20:00, ANTZOKIA (6 € LEIHATILAN,5 € INTERNETEN).** “Luz Negra” koreografia-proposamenean eskutik helduta doaz zientzia eta artea, argiaren izaeraren printzipioak artearen bidez nola adierazi ikertzeko. Argia funtsezkoa da gure bizitzan eta, egun, fenomeno hori erabat normalizatu dugu. Haren izaerak, dena den, bideak urratu ditu fisika kuantikoan eta, ondorioz, zabaldu egin da errealitatea esaten diogunaren ideia, eta egun beste zabaltasun batekin ikusten dugu. Aurrez, ikusleak argiarekin esperimentatzera gonbidatuko ditugu.

**DOMINGO 28 DE ABRIL, 20:00, TEATRO (6 € EN TAQUILLA,5 € EN INTERNET).** “Luz Negra” es una propuesta coreográfica en la que ciencia y arte se unen para investigar cómo expresar artísticamente principios de la naturaleza de la luz. La luz, presente en nuestras vidas de manera vital, se ha convertido en un fenómeno que hemos normalizado. Sin embargo, su naturaleza ha abierto caminos en la física cuántica, y ha hecho que nuestra idea de lo que llamemos realidad se expanda y la contemplemos con otra amplitud. Previamente, el público podrá experimentar con la luz.

# Irakurzaletasuna bultzatzeko programa ikastetxeetan, 23-24 ikasturtea

Aurten ere Atarrabiako Udaleko Kultura Zerbitzuak irakurzaletasuna sustatzeko programa bultzatu du herriko ikastetxeetan (**Lorenzo Goicoa**, **Atargi**, **La Presentación**, **Paz de Ziganda** eta **Pedro de Atarrabia**). Irakasleak prestatzeko saioak egin dira, haur eta gazte literaturan diren kalitatezko liburu berriak adinaren arabera ezagutzeko, eta, horrez gain, aztertu eta aukeratzen da zer jarduera mota egin nahi diren irakasleekin ikastetxe bakoitzean.

Urtarriletik maiatzera bitarte, bost idazlek (**Yolanda Arrieta**, **Miren Agur Meabe**, **Belatz**, **Amets Arzallus** eta **Esti Vivanco**) eta ahozko lau narratzailek (**Charo Pita**, **Ameli**, **Pepe Maestro** eta **Oswaldo Pai**) hogei saiotan parte hartuko dute ahozko kontaketan aritzeko eta egileekiko topaketetan jarduteko, irakasle taldeek aukeraturik. Hamaika saio gaztelaniaz eginen dira, eta, bederatzi, euskaraz. Aurten ere, harrera bikaina izaten ari da bai ikasleen aldetik, bai irakasleen aldetik, saioak artaz eta arduraz prestatzen ari baitira.

# Programa de animación a la lectura en centros escolares, curso 23-24

Un año más el Servicio de Cultura del Ayuntamiento de Villava promueve el Programa de animación a la lectura en los centros educativos (**Lorenzo Goicoa**, **Atargi**, **La Presentación**, **Paz de Ziganda** y **Pedro de Atarrabia**) de la localidad. Se han celebrado sesiones de formación con el profesorado, en las que además de conocer de primera mano novedades de literatura infantil-juvenil de calidad y adecuadas a las distintas edades, se analiza y selecciona el tipo de actividades que se quiere realizar con el profesorado en cada centro escolar.



Entre enero y mayo cinco escritores (**Yolanda Arrieta**, **Miren Agur Meabe**, **Belatz, Amets Arzallus** y **Esti Vivanco**) y cuatro narradores orales (**Charo Pita**, **Ameli**, **Pepe Maestro** y **Oswaldo Pai**) participarán en las veinte sesiones de narración oral y encuentros con autores y autoras, a elección de los equipos docentes. Once de las sesiones se desarrollarán en castellano y nueve en euskera. Un año más, la acogida está siendo magnífica tanto por parte del alumnado como del profesorado, que preparan las sesiones con esmero y dedicación.



## Pablo Archelek zinegotzi garaiko bizipenak biltzen dituen liburua aurkeztu zuen

## Pablo Archel presentó el libro que recoge sus vivencias como concejal

Aurkezpena joan den martxoaren 13an egin zen Kultur Etxeko antzokian. Liburua Pablo Archelen “Urte nahasiak (1999-2004). Atarrabiako zinegotzi baten memoriak” da, "Atarrabiako gaiak" udal bildumako 18. hain zuzen. Garai hartan Archelekin batera zinegotzi izandako Peio J. Monteanok eta Txema Juradok aitzinsolas bana idatzi dute. Liburua Kultur Etxeko atezaindegian dago salgai (3 euro).

El teatro de la Casa de Cultura acogió el pasado 13 de marzo la presentación del Libro de Pablo Archel “Años convulsos (1999-2004). Memorias de un concejal de Villava-Atarrabia”. El libro es el número 18 de la colección municipal “Temas Villaveses”. Cuenta con sendos prólogos de Peio J. Monteano y Txema Jurado, como Archel, concejales de Villava en aquella época. El libro se puede adquirir en la conserjería de la Casa de Cultura (3 euros).








# Euskal dantzak gustu guztietarako

**Mikelats Dantza Taldea bere 30. urtemuga ospatzeko prestatu duen ikuskizunean euskal dantzak ulertzeko hainbat modu ageri dira, tradizionalenetatik hasita berrasmatzen ari diren haietara. Berrikuntza prozesu betean ari dira, talde barnean gertatzen ari den eztabaidaren erakusgarri.**

Mikelats Dantza Taldera kimu berriak iritsi dira. Gaur egun, taldeko 20 dantzariek, bana beste, 19-20 urte dituzte, eta, aurrean, eginkizun zaila baina arras aberasgarria: euskal dantzei kultur ezaugarri gisa eustea. Ilusioz beterik ari dira eta esperientziaz beteriko laguntza jasotzen. Izan ere, kide beteranoenek erronka handiari heldu diote eta taldea utzi baino lehen gainditu nahiko lukete. Haien artean daude Leire Leza eta Iker Andueza: "Gazteak inplikatzeko eta taldea aurrera ateratzeko tenorea da. Gure kasuan, garrantzitsuena da gure jakintza irakastea, guri erakutsi digutena, eta etorkizuna izanen duen talde trinkoa osatzea. Aurrerantzean ez dute irakaslerik izanen eta inork ez die esanen zer koreografia prestatu edo zer jantzi jarri, helduak dira eta erabakiak beren kabuz hartzeko gauza izan behar dute".

Gazteen eta beteranoen arteko adinean aldea bada ere, giroa ezin hobea da. Garai bateko afariak hasi dira berriz egiten, eta emanaldiak bukatu ondorengo otordu-ondoak ere bai.

## Hainbat begirada dituen ikuskizuna

Berrikuntza une sakona da, eta Mikelatsek, beraz, horixe baliatu nahi izan du "Begiradak" prestatzeko, hots, taldeak euskal dantzei buruz duen ikuspegia erakusten duen ikuskizuna. "Gaur egun, euskal dantzak ikusteko modu aunitz egon daitezke eta, Mikelats barnean ere, hainbat ikuspegi daude. Gizartean gertatzen ari den isla da; batzuek tradizioaren alde egiten dute; beste batzuek, modernotasunaren alde...".

**"Begiradak" apirilaren 20an eta 21ean emanen da Kultur Etxean** eta, handik aurrera, hamaika emanaldi izanen dituzte herriko festetako saioa iritsi arte.

Taldekideak gazte-gazteak badira ere, Leirek eta Ikerrek agerian utzi dute belaunaldi berrien inguruan duten kezka. Izan ere, nabarmen egin du behera haurrek euskal dantzekiko duten interesak. Aurten, Idoskiako tailerretan, 40 haur ari dira, eta, duela zenbait urte, aldiz, 120 zebiltzan. "Funtsezkoena da euskal dantzak gustuko izatea; azken finean, dantzan aritu nahi duen taldea baita Mikelats".

# Euskal dantzak para todos los gustos

**Mikelats Dantza Taldea celebra su 30 aniversario con un espectáculo que muestra distintas formas de entender las euskal dantzak, desde la más tradicional a la que busca reinventarse. Un reflejo del debate interno que está viviendo el grupo en pleno proceso de renovación.**







La savia nueva ha llegado a Mikelats Dantza Taldea. Actualmente los y las 20 dantzaris del grupo tienen una media de edad de 19-20 años y por delante una misión difícil pero muy enriquecedora: mantener las danzas vascas como seña de identidad cultural. Ilusión no les falta y ayuda experimentada tampoco. Los integrantes más veteranos, entre los que se encuentran Leire Leza e Iker Andueza, se han marcado un auténtico reto que esperan alcanzar antes de su retirada. "Es el momento de que los y las jóvenes se impliquen y saquen adelante el grupo. En nuestro caso, lo más importante es transmitirles nuestro conocimiento, lo que nos han enseñado a nosotros, y conseguir que se cree un grupo compacto que tenga futuro. Ahora ya no van a tener a profesores que les digan qué coreografías preparar o qué trajes ponerse, están en un grupo de adultos y tienen que ser capaces de tomar decisiones por sí mismos".

A pesar de la diferencia de edad entre jóvenes y veteranos, el ambiente en el grupo es inmejorable. Han vuelto a recuperar las tradicionales cenas y sobremesas tras las actuaciones.

## Un espectáculo con miradas diferentes

Mikelats ha querido aprovechar este momento de renovación en el que está inmerso para preparar "Begiradak" un espectáculo que refleja la visión que tiene el grupo de las euskal dantzak. "Hoy en día puede haber muchas formas de ver las euskal dantzak y dentro de Mikelats también hay puntos de vista diferentes. Es un reflejo de lo que está pasando en la sociedad, algunos apuestan por la tradición, otros por la modernidad...".

**"Begiradak"** se representará los días **20 y 21 de abril en la Casa de Cultura** y a partir de entonces arrancará un intenso programa que culminará con la tradicional actuación en las fiestas de la localidad.

A pesar de la juventud del grupo, Leire e Iker no ocultan su preocupación por las nuevas generaciones. El interés de los y las más txikis por las euskal dantzak ha descendido notablemente. Este año en los talleres de Idoskia hay 40 niños y niñas, muy lejos de los 120 de años atrás. "Lo fundamental es que te gusten las euskal dantzak, al fin y al cabo Mikelats no es más que un grupo de danza que quiere bailar".



TARIFEI BURUZKO INFORMAZIO GUZTIA DAKARTEN FOILETOAK DITUZU ESKURA MARTIKETEKO HARRERAN

DISPONES DE FOLLETOS CON INFORMACIÓN COMPLETA DE TARIFAS EN LA RECEPCIÓN DE MARTIKET

# Martiketeko udaldiko egutegia eta prezioak

# Calendario y precios de la campaña de verano en Martiket

**ADI!**
Indarrean dirau **URTEKO ABONUAREN SUSTAPENAK**, hasierako matrikula ordaindu gabe (9 hilabetez irauteari lotua).

**¡ATENCIÓN!**
Sigue activa la **PROMOCIÓN** de **ABONO ANUAL** sin pago de matrícula inicial (sujeta a una permanencia de 9 meses).

Martiketeko 2024ko udaldia ekainaren 8an abiatu eta irailaren 8an bukatuko da. Taulan, uda partean sartzeko aukerak ageri dira urteko abonua ez dutenentzat (Martiket / Kirol / Oinarrizkoa):

La campaña de verano 2024 de Martiket arranca el 8 de junio y finaliza el 8 de septiembre. En la tabla, las opciones de acceso en verano para las personas que no disponen de abono anual (Martiket / Kirol / Básico):



| BESTE ABONUAK 2024 / OTROS ABONOS 2024 | EGUNEKO SARRERA / ENTRADA DIARIA (Igerileku estalia + udako igerilekua / Piscina cubierta + piscina de verano) | | HILEKO ABONUA / ABONO MENSUAL (igerilekua + muskulazio-gela / Piscina cubierta + piscina de verano + sala de musculación) | | UDAKO ABONUA / ABONO VERANO (Igerileku estalia + udako igerilekua / Piscina cubierta + piscina de verano) | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Lanegunetan / Laboral | Asteburuetan/Jaiegunetan / Fin de Semana/Festivo | Erroldatua / Empadronado/a | Ez-erroldatua / No empadronado/a | Erroldatua / Empadronado/a | Ez-erroldatua / No empadronado/a |
| HELDUAK / ADULTO/A | 10,00 € | 12,00 € | 76,50 € | 91,70 € | 215,90 € | 259,00 € |
| GAZTEAK / JUVENIL | 8,00 € | 10,00 € | 53,50 € | 64,10 € | 133,00 € | 159,60 € |
| HAURRAK / INFANTIL | 5,00 € | 7,00 € | 38,10 € | 45,90 € | 116,20 € | 139,50 € |
| 65 URTETIK GORA / MAYOR 65 AÑOS | 6,00 € | 8,00 € | 38,20 € | 45,90 € | 116,20 € | 139,50 € |
| DESGAITUAK/PERSONAS CON DISCAPACIDAD | 5,00 € | 7,00 € | 30,50 € | 36,70 € | 99,70 € | 119,60 € |



# Eskaintza handiagoa Martiket Abonuan

Martxoan, ikastaro berri bat sartu da Martiket Abonuko jardueren artean:

- GORPUTZ JARRERA BERREZTEA: ordutegi berri bat gehitu da, 16:30etik 17:30era

Abonu hau duen jendeak hainbat gauza gozatzen ditu, hala nola igerilekuak, muskulazio gela, padela, tenisa eta squasha, bai eta jarduera eskaintza oso bat ere ekainaren 30era arte.

# Más oferta en el Abono Martikek

En marzo se sumado una nueva clase a la parrilla de actividades del BONO MARTIKET:

- REORDENACIÓN POSTURAL: se suma un horario nuevo, los jueves de 16:30 a 17:30

Las personas que poseen este abono disfrutan de las piscinas, la sala de musculación, el pádel, el tenis y el squash y de una completa parrilla de actividades hasta el 30 de junio.

# Haurrendako igeriketa ikastaro trinkoak ekainean

Joan den denboraldietan izaniko arrakasta ikusirik, Martiketek berriz ere antolatu ditu haurrendako igeriketa ikastaro trinkoak ekainerako. Hiru aste izanen dira, astelehenetik ostiralera, egunero ordu erdi, ekainaren 3tik 21era. Hainbat maila eskaintzen dira: hastapena, tartekoa, hobetzea eta estiloak. Izena online eman daiteke edo Martiketeko igerilekuko harrera bertara joanda; abonatuek apirilaren 17tik aitzina eta, maia-tzaren 1az geroztik, ez abonatuek. Erroldatuek 48 euro ordainduko dute; 62,50 euro, abonaturik ez dauden erroldatuek; eta 65,50 euro, abonaturik eta erroldaturik ez daudenek.



# Intensivos de natación infantil en junio

Tras la buena acogida de temporadas pasadas, Martiket vuelve a ofertar cursillos intensivos de natación infantil en junio. Serán tres semanas, de lunes a viernes, media hora cada día del 3 al 21 de junio. Se ofertan cursillos de nivel iniciación, intermedio, perfeccionamiento y estilos. Las inscripciones se podrán realizar tanto de forma online como presencial en la recepción de las piscinas de Martiket, en abril en el caso de las personas abonadas, y en mayo en el de las personas no abonadas. En cuanto a los precios, cuestan 48 euros en el caso de personas empadronadas; 62,50 euros para personas empadronadas no abonadas; y 65,50 euros para personas no empadronadas y no abonadas.

## Deskontuak Hiru-Herrin, Kirol abonatuentzat

Kirol Martiket-ek 2 euroko deskontua eskaini die abonatuei XXXIV. Hiru Herri lasterketa herrikoian parte hartzeagatik. Zehazki, apirilaren 21ean jokatuko da, igandearekin, Burlatatik abiatuta eta Burlatara ere iritsita.

## Descuentos en la Hiru-Herri para abonados

Kirol Martiket oferta a sus abonados-as un descuento de 2 euros por participar en la XXXIV Carrera Popular Hiru Herri, que se celebrará el domingo 21 de abril, con salida y llegada en Burlada.

# KIROLAK | DEPORTES




## Hiru Herri eskolarteko atletismo txapelketa itzuli da

## Regresa el Torneo Interescolar Hiru Herri de atletismo

Hainbat urtez ez da egin, baina aurten bai, hemen dira Hiru Herri eskolarteko atletismo txapelketako pista eta kros lehiaketak, Burlatako "El Soto" udal atletismo pistetan, XXVIII. edizioa da, hain zuzen. Beti bezala, asteazken arratsaldeetan izaten dira, 15:30etik 17:00etara, krosa izan ezik, 16:00etan hasten baita. Martxoaren 20an hasi eta maiatzaren 22an bukatuko da. Burlata, Atarrabia eta Uharteko ikastetxeetako lehen hezkuntzako 1. mailatik 6.era bitarteko ikasleek dute lehiaketan aritzeko aukera. Atarrabiako Atargi, Lorenzo Goicoa, Dominicas eta Paz de Ziganda ari dira parte hartzen.

Tras unos años de ausencia, regresa a las pistas municipales de Atletismo "El Soto" de Burlada, las competiciones de pista y cross del Torneo Interescolar Hiru Herri, en la que va a ser su XXVIII edición. Como siempre, se desarrollan los miércoles por la tarde, de de 15:30 a 17: 00 salvo el cross que comienza a las 16:00. Arranca el 20 de marzo y finaliza el 22 de mayo. Puede participar en esta competición el alumnado de los colegios del entorno de Burlada, Villava y Huarte que cursen de 1º a 6º de Primaria. De Villava, compiten Atargi, Lorenzo Goicoa, Dominicas y Paz de Ziganda.



## Hitzarmena berritu da Club Ciclista Villavés-ekin

## Renovación del Convenio con el Club Ciclista Villavés

Udalak udal txirrindularitza eskolarekiko hitzarmena sinatu zuen, joan den martxoaren 21ean, Club Ciclista Villavés elkartearekin. Irudian, ezkerrean, Mikel Oteiza, eta eskuinean, Pepe Barruso, klubeko presidentea.

El Ayuntamiento firmó el pasado 21 de marzo la renovación del convenio de la escuela deportiva de ciclismo con el Club Ciclista Villavés. En la imagen, a la izquierda, Mikel Oteiza, y a la derecha, Pepe Barruso, presidente del club.





**Tu esfuerzo merece una acreditación**

Si la falta de un título de formación ha dificultado tu integración laboral, promoción profesional y/o reconocimiento social, ahora puedes obtenerlo. Los Procedimientos de Evaluación y Acreditación de Competencias (PEAC) **permiten obtener una acreditación oficial a aquellas personas que tienen experiencia laboral demostrable o que han recibido formación no formal**, es decir, formación realizada fuera del sistema educativo oficial.

**PARA MÁS INFORMACIÓN**
info@atana.org
www.acreditanavarra.es

atana Clúster de tecnología y consultoría
Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua
Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia
Gobierno de España | Ministerio de Educación y Formación Profesional
Financiado por la Unión Europea NextGenerationEU




# Futbol eta eskubaloi eskolak: 2024-25 ikasturterako izen-ematea

Aurreinskripzio epea, zehazki, **maiatzaren 20tik 24ra** egonen da zabalik, udaleko futbol eta eskubaloi eskoletan diren lekuak zozketa bidez betetzeko, 2024-25 ikasturteari begira. Atarrabian, Ezkabarten, Anuen, Olaibarren eta Ultzaman 2024ko maiatzaren 1ena baino lehen erroldaturik dauden haurrek izanen dute zozketan parte hartzeko aukera. Erroldatuek eta erroldatu gabeek ere egun berberetan ematen ahalko dute izena, baina kontuan hartu behar da erroldatuek lehentasuna dutela. Zozketa bat eginen da Atarrabian erroldaturikoen zerrendak antolatzeko; beste zozketa bat, udalerri hitzarmendunetan erroldaturikoen zerrendak antolatzeko (Ezkabarte, Anue, Olaibar eta Ultzamaldea) eta, beste zozketa bat, gainerakoetarako.

# Escuelas de fútbol y balonmano inscripciones para el curso 2024-25

**Del 20 al 24 de mayo** permanecerá abierto el plazo de preinscripcion para cubrir por sorteo las plazas vacantes de las Escuelas Municipales de fútbol y de balonmano 2024-25. Podrán optar a apuntarse al sorteo de plazas vacantes niños y niñas empadronados en Villava, Ezcabarte, Anue, Olaibar y Ultzama en fechas anteriores al 1 de mayo de 2024. También pueden inscribirse en las mismas fechas los y las no empadronadas, aunque hay que tener en cuenta que el empadronamiento otorga prioridad. Habrá un sorteo para ordenar las listas de las personas empadronadas en Villava; otro sorteo para ordenar las listas de las empadronadas en los municipios con convenio (Ezkabarte, Anué, Olaibar y Ultzamaldea) y un último sorteo para el resto.

# Kirola edo jolasa da?

## Apiril eta maiatzean, indoor zikloa, total body combat, crostraining eta dantza latinoak, 14 urtetik 17ra bitartekoentzat

Kirol Zerbitzuak, Gazteria alorrarekin koordinaturik, "Mugitu–Indartu" izena eman dioten jarduera hau eskaini du. **Euskarazko** taldea astelehenetan izanen da, 16:30etik 17:30era, apirilaren 15etik maiatzaren 27ra. **Gaztelaniazko** taldea, berriz, asteartetan, 16:30etik 17:30era, apirilaren 16tik maiatzaren 28ra.
Abonatuendako prezioa 10 euro da, eta, 20, ez abonatuentzat. **Izen-ematea eta ordainketak**: martxoaren 25etik apirilaren 9ra, 948 012 012ra deituz.

# ¿Es deporte o diversión?

## En abril y mayo, ciclo indoor, total body combat, crostraining y bailes latinos para jóvenes de 14 a 17 años

El Servicio de Deporte, en coordinación con el Área de Juventud, oferta esta actividad a la que ha llamado "Mugitu–Indartu". El grupo de **euskera** es los lunes de 16.30 a 17.30 desde el 15 de abril hasta el 27 de mayo. El grupo de **castellano** es los martes de 16.30 a 17.30 desde el 16 de abril hasta el 28 de mayo.
El precio para personas abonadas es 10 euros, y 20 para no abonadas. **Inscripciones y pagos:** del 25 de marzo al 9 de abril, llamando al 948 012 012.

# Udalaren Kirol Eskolak: 2024-25 ikasturterako tokia erreserbatzea

Ikasturte honetan udalaren kirol eskoletan izena emandako haurrek erreserba egiteko aukera izanen dute heldu den ikasturterako (2023-24), **948 012 012** zenbakira deituz, betiere **maiatzaren 3tik 17ra**. Erreserba egiteko unean, matrikularen kostuaren %40 ordaindu beharko da tokia erreserbatzeagatik.

# Escuelas Deportivas Municipales: reserva plaza para el curso 2024-25

Los niños y niñas inscritos en las escuelas deportivas municipales en el presente curso podrán reservar voluntariamente y de forma preferente su plaza para el próximo curso 2024-25, llamando al **948 012 012**, **del 3 al 17 de mayo**. En el momento de formalizar la reserva hay que abonar el 40% del coste de la matrícula en concepto de reserva de plaza.






# Udal Pilota Eskolaren emaitza onak NKJetan

Udal pilota eskolako **Sergio Santesteban** eta **Eneko Otamendi** pilotariak bikain aritu dira Nafarroako Kirol Jokoetan. Sergio Santestebanek lehen mailako banakako nafar txapelketa irabazi zuen haurretan Aiur Ugartamendia leitzarraren aurka: 18-17. Partidua Aiurrek menderatu zuen, 17 eta 15 aurreratuta, baina finaletan jokatu izanak dakarren esperientziak eta funtsezko uneetan erakutsitako eskarmentuak garaipena eman zioten Sergiori nafar pilotaren txapelketarik garrantzitsuenean. Eneko Otamendi, gainera, Nafarroako txapeldunorde izan zen benjaminetan, banakako eskupilotan.
Txapela jantzirik, Sergio Santestebanek lekua ziurtatua du Espainiako Txapelketa Nafarroako selekzioarekin jokatzeko, ekain bukaeran.

# Buenos resultados de la Escuela Municipal de Pelota en los JDN

Los pelotaris **Sergio Santesteban** y **Eneko Otamendi** de la Escuela Municipal de Pelota brillaron en los Juegos Deportivos de Navarra. Sergio Santesteban ganó el campeonato navarro individual en infantiles de primera categoría contra el leitzarra Aiur Ugartamendia 18-17. Fue un partido dominado por Aiur, que se puso por delante 17-15, pero la experiencia en finales y el saber estar en momentos claves hizieron ganador a Sergio en el campeonato más importante de la pelota navarra. Eneko Otamendi resultó además subcampeón de Navarra en mano individual en la categoría benjamín.
Con esta txapela, Sergio Santesteban tiene un plaza asegurada para jugar el Campeonato de España con la selección navarra a finales de junio.

## Osasun karpeta pertsonala

### Osasun Etxeak osasun karpeta pertsonala erabiltzeko jarraibide batzuk oroitarazi dizkigu

Osasun karpeta pertsonala gune pertsonal digitala da, ingurune teknologiko seguru batean txertatua, erabiltzaile bakoitzaren osasunari buruzko informazioa eskuratzeko eta tramiteak egiteko. 16 urte izan beharra dago zerbitzua eskuratzeko, bai eta helbide elektroniko bat eta telefono mugikor bat ere.

### NOLA SARTZEN DA OSASUN KARPETA PERTSONALEAN?

**1-** Ziurtagiri digitalaren edo NAN elektronikoaren bidez.. https://administracionelectronica.navarra.es/carpetasalud

**2-** Erabiltzaile-izenarekin eta pasahitzarekin

- **Erabiltzailea:** sartu zure CIPNA erabiltzaile-zenbakia. Bilatu zure osasun karpetaren zenbakia. 8 zifra ditu eta lehen biak 00 dira.
- **Pasahitza:** paperean ematen da osasun etxean. Eskabidea bete behar da; horretarako, NANa edo agiri baliokidea aurkeztu behar da (pasaportea, gidabaimena edo bizileku-txartela). Mezu elektroniko bat jasoko duzu webgunerako estekarekin, osasun kapetan sartzeko. Aldatu pasahitza lehen aldiz sartzeko. Postaz bidalitako estekak lehen aldiz sartzeko eta pasahitza aldatzeko baino ez du balio.
- **Ondoren sartzeko**, jo helbide honetara: **https://administracionelectronica.navarra.es/carpetasalud**
- **10 egun dituzu** aplikazioan erregistratzeko; garaiz egiten ez baduzu, beste sarbide bat eskatu behar duzu.
- **Pasahitza urtebetera iraungiko da**, sistemak aldez aurretik abisatuko dizu eguneratu dezazun.
- **13 urtetik beherakoak** ordezkatzeko sarreraren kasuan, eskatzaileak konpromisoa hartuko du beste gurasoari jakinarazteko eta emateko (biek adingabearen guraso-ahala dutenean) semearen/alabaren osasun karpetako erabiltzaile-zenbakia eta pasahitza.




NAFARROAKO OSASUN ATARIA

PORTAL DE SALUD DE NAVARRA

### KASUOTAN AUTOMATIKOKI DESAKTIBATUKO DA:

- Adingabeen kasuan, ordezkatuak 12 urte betetzen dituen egunean.
- Osasun karpetaren titularra hiltzen denean.

### ZER KONTSULTATU DAITEKE?

- **Informazio klinikoa:** txosten klinikoak lortzen ahalko dituzu, ospitaleek egindako txostenak eskatu, historia kliniko laburtua ikusi (erregistratu diren gauzak jasotzen dituen zure historia klinikoaren laburpena), agindu dizuten medikazioa ikusi, txertoen egutegia ikusi.
- Hurrengo egunetan **hitzorduren bat** baduzu:
  - Lehen mailako arretako hitzorduak
  - Arreta espezializatuko hitzorduak
- **Bestelako online zerbitzuak:**
  - Hitzordua eskatu, medikuarekin edo erizainarekin hitzordua eska dezakezu honako kasuotan:
    - Gaixotasun berria edo berriz gaixotzea
    - Berrazterketa edo gaixotasun ezaguna
    - Osasun azterketak eta txertoak
    - Telefono bidezko kontsulta
    - Tratamenduak eta sendaketak
  - Itxaron zerrenden bisorea: ikusi dezakezu zertan diren kirurgiako, kontsultetako eta probetako itxaron zerrendak: (TAC),...

## Carpeta personal de salud

### El Centro de Salud nos recuerda algunas pautas de uso de la Carpeta personal de salud

La carpeta personal de salud es un espacio personal digital en un entorno tecnológico seguro para acceder a información de salud de cada persona usuaria y realizar trámites. Son requisitos para disponer de este servicio tener 16 años o más y disponer de una dirección de correo electrónico y de teléfono móvil.

### ¿CÓMO SE ACCEDE A LA CARPETA PERSONAL DE SALUD?

**1-** Mediante certificado digital o DNI electrónico. https://administracionelectronica.navarra.es/carpetasalud

**2-** Con usuario y contraseña

- **Usuario:** introduzca su número de usuario CIPNA. Busque el número de su carpeta sanitaria, tiene 8 cifras y empieza por 00.
- **Contraseña:** facilitada en papel en el centro de salud. Hay que cumplimentar la solicitud, para ello hay que presentar DNI o documento equivalente (pasaporte, carnet de conducir o tarjeta de residencia). Recibirá un correo con el enlace a la web para acceder a la capeta de salud, cambie la contraseña para acceder por primera vez. El enlace enviado por correo sólo sirve para el primer acceso y cambio de contraseña.
- Para **accesos posteriores** debe dirigirse a la dirección: https://administracionelectronica.navarra.es/carpetasalud
- Tiene **10 días para registrarse** en la aplicación, si no lo hace a tiempo debe solicitar un nuevo acceso.
- La contraseña **caduca al año**, el sistema le avisará previamente para que pueda actualizarla.
- En el caso de acceso por representación para **menores de 13 años**, la persona solicitante se compromete a informar y facilitar al otro progenitor /a cuando ambos tengan la patria potestad del menor, el número de usuario y contraseña de la carpeta de salud de su hijo /a.

### SE DESACTIVA AUTOMÁTICAMENTE EN ESTOS CASOS

- En caso de menores, el día que la persona representada cumpla 12 años.
- En caso de fallecimiento de la persona titular de la carpeta de salud

### ¿QUÉ SE PUEDE CONSULTAR?

- **Información clínica**, podrás obtener informes clínicos, solicitar informes de centros hospitalarios, ver historia clínica resumida (resumen de tu historia clínica que recoge los episodios registrados), ver medicación prescrita, ver calendario vacunal.
- Si tienes alguna **cita** los próximos días:
  - Citas en atención primaria
  - Citas en atención especializada
- **Otros servicios online:**
  - Pedir cita previa, puedes pedir cita con médico o enfermera en los siguientes casos:
    - Enfermedad nueva o recaída
    - Revisión o enfermedad conocida
    - Exámenes de salud y vacunas
    - Consulta telefónica
    - Tratamientos y curas.
  - Visor de listas de espera: puedes consultar tus listas de espera quirúrgicas, de consultas, de pruebas: (TAC), ...

AtarrabiakoGaztelekua · Gazteleku_atarrabia · 662 031673 · 948 35 59 70 · juventud@villava.es

ATARRABIAKO GAZTELAN
EMPLEO JOVEN VILLAVA

**Gazteria alorrak kanpaina egin du apiril eta maiatzean genero ikuspegia duen gazte enplegu-planaren ekintza nagusiak ezagutzera emateko**

**En abril y mayo el área de Juventud va a llevar a cabo una campaña para dar a conocer las principales acciones del Plan de empleo joven con perspectiva de género de Villava**

Genero ikuspegia duen gazte enplegu-planaren edukia azaltzeko kanpainaren bidez, gainera, gazte enpleguko bulegoan eskaintzen diren zerbitzu eta programen berri emanen da. Bulegoa Gaztelekuko lehen solairuan dago eta joan den otsailaren 17an zabaldu zen. 2024-2025 ikasturtean, hainbat ekintza abiaraziko dira informazioa eta prestakuntza emateko, gazteek zer lanbide irteera dituzten eta lan munduan sartzeko zer prestakuntza-aukera dituzten jakik dezaten.

Esta campaña para dar a conocer el Plan de empleo joven con perspectiva de género de Villava servirá también para informar de los servicios y programas que se ofertan en la Oficina de empleo joven (ubicada en la primera planta del Gazteleku), que se inauguró el pasado 17 de febrero.
A lo largo del curso 2024-2025 se van a poner en marcha varias acciones tanto informativas como formativas con el objetivo de orientar a las/os jóvenes sobre las diferentes salidas profesionales y las posibilidades de formarse para acceder al mundo laboral.

# Gazte enpleguko Planaren ekintzan, abian

# Arrancan las acciones del Plan de empleo joven

INFORMAZIOA ETA AHOLKULARITZA GAZTE ENPLEGUKO BULEGOAN (GAZTELEKU)
**juventud@villava.es**
**662031673**

INFORMACIÓN Y ASESORAMIENTO EN LA OFICINA DE EMPLEO JOVEN (GAZTELEKU)
**juventud@villava.es**
**662031673**

## INFORMAZIO KANPAINAK

- Informazio saioak Pedro de Atarrabia institutuan, DBHko ikasleei zuzenduak, egun prestakuntza arloan diren aukerak eta lanbide irteerak lantzeko.
- Genero rol tradizionalak hausteko eta horren gaineko sentsibilizazioa eragiteko ekintzak. Solasaldiak eginen dira institutuan, informazioa emateko eta sektore maskulinizatuetan ari diren emakume erreferenteak ezagutzera emateko.
- Neska gazteak sentsibilizatzeko ponentziak landuko dira ikasketa eta prestakuntza teknikoei buruz, gaur egun gizon gehiago ari baitira haietan emakumeak baino.
- Hezkuntza sisteman hartzen diren erabakiek berekin dakartzaten ondorioei buruzko sentsibilizazio kanpaina (zientzietako, letretako... ikasketak aukeratzea). Halaber, lanbide irteerek baldintzatutako ikasketen aukeraketa izanen da mintzagai.

## CAMPAÑAS INFORMATIVAS

- Sesiones informativas en el instituto Pedro de Atarrabia dirigidas al alumnado de ESO para trabajar las posibilidades de formación existentes y las salidas profesionales.
- Acciones relacionadas con la sensibilización y ruptura de roles tradicionales de género. Están previstas unas charlas en el instituto que informarán y darán a conocer referentes femeninos que trabajan en sectores masculinizados.
- Sensibilización de la población joven femenina con ponencias sobre las carreras y formaciones STEM (técnicas), estudios que actualmente atraen a más hombres que mujeres.
- Campaña de sensibilización sobre las consecuencias personales y laborales que conllevan las decisiones que se toman en el sistema educativo (elección de estudios de Ciencias, de Letras...). También se tratará la elección de estudios condicionada por las salidas laborales.

## PRESTAKUNTZA IKASTAROAK

Prestakuntza eta lan munduan sartzea sustatze aldera, Gazteria alorrak enplegurako prestakuntza plana prestatuko du gazteendako, Nafar Lansarerekin eta Hezkuntza Departamentuarekin koordinaturik.

- Nolabaiteko desgaitasuna dituzten pertsonak tailer okupazionaletara bideratuko dira edo tailerrei buruzko informazioa emanen zaie. Ekimen baliagarria izanen da lan munduan sartzeko eta lanpostu bat eskuratzea ondorio izan dezaketen prestakuntza ikastaroetan aritzeko.
- Udalak, Nafar Lansarerekin elkarlanean, oinarrizko ikastaro laburrak eskainiko dizkie ikasketarik gabeko edo oinarrizko ikasketak dituzten gazteei.
- Gazte enpleguko bulegoak gaitasun pertsonalak eta profesionalak irakasteko tailerrak bultzatuko ditu, hau da, nola prestatu curriculuma, nola prestatu lan elkarrizketarako, sare sozial nagusiak eta enplegua bilatzeko orrialdeak....

## CURSOS FORMATIVOS

Para favorecer la formación y posterior incorporación al mundo laboral, el área de Juventud va a elaborar el Plan Joven de formación para el empleo, en coordinación con el Servicio Navarro de Empleo y el Departamento de Educación.

- Se va a informar o derivar, en su caso, a talleres ocupacionales a personas con algún tipo de discapacidad. Con esta iniciativa se pretende facilitar su incorporación al mundo laboral o el acceso a cursos formativos que puedan derivar en la consecución de un puesto de trabajo.
- El Ayuntamiento, en colaboración con el Servicio Navarro de Empleo, va a ofertar cursos básicos con duración reducida para jóvenes sin estudios o con estudios básicos.
- Desde la Oficina de empleo joven se van a impulsar talleres formativos en competencias personales y profesionales (cómo elaborar un curriculum, cómo prepararse una entrevista de trabajo, las principales redes sociales y páginas para buscar empleo...).



# HAZIera enpleguan hasteko proiektuaren bigarren edizioa

# Segunda edición del proyecto de iniciación al empleo HAZIera

IZEN-EMATEA:
APIRILAREN 29TIK MAIATZAREN 10ERA
**juventud@villava.es** helbidean
HAUTAPEN PROZESUA MAIATZAREN BIGARREN HAMABOSTALDIAN

INSCRIPCIONES:
29 DE ABRIL-10 DE MAYO en **juventud@villava.es**
PROCESO DE SELECCIÓN LA SEGUNDA QUINCENA DE MAYO

Aurten ere, Atarrabiako Udalak HAZIera izeneko programa jarriko du abian gazteak enpleguan hasteko. Pasarelas programaren jarraipena da, 16-23 urte arteko gazteei dago zuzendua eta lan mundua herriko gazteengana hurbiltzea du helburu, lehen enplegua lortzeko eta esperientziak ingurune bereko gazte adinkideekin partekatzeko. Gazteria alorrak antolatu du Hirigintza, Obrak eta Ingurumen alorrekin elkarlanean, herriko gune publikoetan hobekuntza eta mantentze lanak egiteko. Iaz, Ezkaba mendiko ibilbide botanikoa moldatu eta, hainbat plazatan, hobekuntza lanak egin zituzten (Aldapa, Konstituzio eta Udaletxe plazetan).

**50 orduko enplegu ordaindua eta prestakuntza**
Proiektuak bi txanda izanen ditu: lehena, ekainaren 20tik uztailaren 5era, eta bigarrena, uztailaren 15etik 31ra.
Lehen bi egunetan, parte-hartzaileek enplegua era aktiboan bilatzeko prestakuntza jasoko dute (gaitasun pertsonalak eta profesionalak landuko dira), Nafar Lansare zerbitzua ikustera joanen dira (Iturrondo Zentro Integralean kokatua), eta prestakuntza saio bat jasoko dute segurtasunaz, higieneaz eta tresnen erabileraz.
Pertsona aukeratuek 10 laneguneko kontratu bat sinatuko dute, hau da, 5 ordu eguneko (50 ordu, guztira). Aurten, gainera, gauza berri bat eginen dute, aisia jarduera batean parte hartuko baitute udan.

Este año el Ayuntamiento de Villava volverá a poner en marcha el proyecto de iniciación al empleo HAZIera, continuación del programa Pasarelas. Dirigido a chicas y chicos de entre 16 y 23 años, su objetivo es acercar el mundo laboral a las/os jóvenes de la localidad para que consigan su primer empleo y compartan la experiencia con jóvenes de su edad y de su entorno. Organizado por el área de Juventud, en coordinación con las áreas de Urbanismo, Obras y Medio Ambiente, el proyecto HAzIera propone trabajos de mejora y mantenimiento en los espacios públicos del municipio. El año pasado acondicionaron la senda botánica del monte Ezkaba y realizaron trabajos contra la erosión en este monte; y llevaron a cabo labores de mejoras (pintado y plantaciones) en varias plazas (Aldapa, Constitución y Consistorial).

**50 horas de empleo remunerado y formación**
El proyecto contará con dos tandas: la primera, del 20 de junio al 5 de julio; y la segunda, del 15 al 31 de julio.
Durante los dos primeros días, las y los participantes recibirán formación sobre búsqueda activa de empleo (se trabajarán competencias personales y profesionales), realizarán una visita al Servicio Navarro de Empleo ubicado en el Centro Integral Iturrondo, y asistirán a una sesión informativa sobre seguridad, higiene y manejo de herramientas.
Las personas seleccionadas firmarán un contrato de 10 jornadas laborales de 5 horas diarias (50 horas en total). Este año y, como novedad, realizarán además una actividad de ocio a lo largo del verano.

# Nerabeendako programa osasun emozionala eta mentala lantzeko

Gazteria alorreko hezitzaileek, Gizarte Zerbitzuen alorrarekin elkarlanean, "Betazala" izeneko programa jarri dute abian, apirilean osasun mentala eta emozionala lantzeko. Programa berria Atarrabian, Ezkabarten eta Olaibarren bizi diren 12-17 urteko gazteei dago zuzendua, eta udalerri horietako nerabeen ongizate emozionala eta psikikoa landu eta hobetzea du helburu.
Proiektuak aisia hezigarriko jarduera eskaintza zabala eskainiko du, baliabideak eta tresnak barne, parte-hartzaileen osasun mentala eta ongizate psikologikoa hobetze aldera.

**Informazioa / Información**
**948 35 59 70**
**662 031 673**

# Programa de salud emocional y mental para adolescentes

El equipo educativo del área de Juventud, en coordinación con el área de Servicios Sociales, ha puesto en marcha en abril el Programa de salud mental y bienestar emocional "Betazala". Se trata de un nuevo programa, dirigido a jóvenes de entre 12 y 17 años que residan en Villava, Ezkabarte y Olaibar, que nace con el objetivo de trabajar y mejorar el bienestar emocional y psicológico de los/as adolescentes de estas localidades.
El proyecto ofrecerá una amplia oferta de actividades de ocio educativo y recursos y herramientas encaminadas a mejorar la salud mental y el bienestar psicológico de sus participantes.

**Berritasuna!**
**¡Novedad!**

YouTube
Atarrabiako Gaztelekua

# Abentura-zalea bazara, emazu izena Conquis 3 Herri-n

Jolasa, biziraupena, trebezia, lehia, izadia eta talde lana. Horra hor Conquis 3 Herri abenturako osagai nagusiak, Atarrabia, Uharte eta Burlatako **15 urtetik 17ra bitarteko gazteei** zuzendua. **Ekainaren 25etik 27ra** eginen da. **Izena apirilaren 10etik 19ra eman beharko da**, **948 012 012** telefonora deituz (012 Infolokal), eta prezioa **50 euro** da. Atarrabia, Uharte eta Burlatako gazteek izanen dute lehentasuna. Aurreko edizioetan parte hartutakoen arteko inork aurten ere aritu nahi badu, bideo-casting bat bidali beharko du **662 031 673** telefonora edo **juventud@villava.es** helbide elektronikora.

ANÍMATU ZAITEZ!



# Si te gusta la aventura, apúntate al Conquis 3 Herri

Diversión, supervivencia, habilidad, ingenio, competición, naturaleza y trabajo en equipo. Son los ingredientes estrella del Conquis 3 Herri, una aventura dirigida a **jóvenes de entre 15 y 17 años** de Villava, Huarte y Burlada que se desarrollará **del 25 al 27 de junio**.
Las **inscripciones** serán **del 10 al 19 de abril** a través del teléfono **948 012 012** (012 Infolocal) y el precio, **50 euros**. Tendrán prioridad las y los jóvenes de Villava, Huarte y Burlada. Quienes hayan participado en ediciones anteriores y quieran volver a vivir la experiencia, deberán mandar durante el periodo de inscripción un vídeo-casting al teléfono **662 031 673** o al correo electrónico **juventud@villava.es**.

¡ANÍMATE!

# Bada lekurik Gazte Bizi eta Gazte Bizi plus Udaberria ekimenetan

Oraindik ere bada lekurik Gazte Bizi eta Gazte Bizi plus Udaberria aisia hezigarriko programetan. Gazte Bizi ekimena 12-14 urte artekoentzat da eta ostiraletan egiten da 18:00etatik 20:00etara eta, larunbatetan, 18:30etik 20:30era. Gazte Bizi plus programa, berriz, ostiraletan egiten da 19:00etatik 21:00etara eta 14 urtetik 17ra bitarteko neska-mutilentzat da.




Jarduerak apirilaren 12an hasi (ostirala) eta ekainaren 8an bukatuko dira, larunbatarekin. Udaberri honetarako prestatu den programazioan, gauza aunitz izanen dira, hala nola antzerkia, irteerak, tailerrak, kanpaldiak, abentura anitzeko jarduerak, kirola, jolasak eta beste. Gazte Biziren prezioa 40 euro da erroldatuentzat, eta 80 €, ez erroldatuentzat. Gazte Bizi plusen prezioa, berriz, 30 euro da erroldatuentzat, eta 60 €, ez-erroldatuentzat.
Interesatzen bazaizu edo programei buruzko argibideak nahi badituzu, zatoz Gaztelekura edo deitu **948 35 59 70** / **662031673** telefonoetara.

# Plazas libres en Gazte Bizi y Gazte Bizi plus Udaberria

Todavía quedan plazas libres en los programas de ocio educativo Gazte Bizi y Gazte Bizi plus Udaberria. El programa Gazte Bizi está dirigido a jóvenes de 12 a 14 años y se desarrolla los viernes de 18:00 a 20:00 y los sábados, de 18:30 a 20:30. El programa Gazte Bizi plus tiene lugar los viernes de 19:00 a 21:00 y está dirigido a chicas y chicos de entre 14 y 17 años.




Las actividades darán comienzo el viernes 12 de abril y finalizarán el sábado 8 de junio. En la programación preparada para esta primavera habrá teatro, salidas, talleres, acampadas, multiaventura, deporte o juegos, entre otras propuestas. El precio de Gazte Bizi es de 40 euros para personas empadronadas y 80 euros para no empadronadas. El precio de Gazte Bizi plus es de 30 euros para personas empadronadas y 60 euros para no empadronadas.
Si te interesa o necesitas más información sobre los programas, **acércate al Gazteleku** o llama a los teléfonos **948 35 59 70** / **662031673**.

# Antzerki tailerren ikasturte bukaerako antzezlanak

Maiatzean emanen dira 2023-24ko antzerki tailerretan ari diren ikasleen antzezlanak (euskaraz eta gaztelaniaz), Atarrabia, Uharte eta Burlatako Udaletako Gazteria alorrek antolaturik, Antzoki Sarearekin eta "Oholtzara. Salto a Escena" programarekin elkarlanean. Saio guztiak 18:00etan hasi eta ostegunetan eginen dira: maiatzaren 9an, **Atarrabiako Kultur etxean**; maiatzaren 16an, **Burlatako Kultur Etxean**; eta maiatzaren 23an, **Uharteko Kultur Etxean**. Gonbidapenak aurreko astean banatuko dira herri bakoitzeko Gaztelekuetan.

# Obras de fin de curso de los talleres de teatro

En mayo tendrá lugar la representación de las obras de fin de curso del alumnado que participa en los Talleres de teatro (castellano y euskera) 2023-2024, organizados por las áreas de Juventud de los Ayuntamientos de Villava, Huarte y Burlada, en colaboración con la Red de Teatros y el programa "Oholtzara. Salto a Escena". Todas las funciones comenzarán a las 18:00 y se celebrarán en jueves: el 9 de mayo, en la **Casa de Cultura de Villava**; el 16 de mayo, en la **Casa de Cultura de Burlada**; y el 23 de mayo, en la **Casa de Cultura de Huarte**. Las invitaciones podrán recogerse la semana anterior a la actuación en los Gaztelekus de cada localidad.

# INAUTERIAK | CARNAVALES





















## Erretiratuen elkartearen jarduera

### Martxoaren 15ean, ohiko informazio batzarra egin zen

Joan den martxoaren 2an, erretiratuen elkarteko mus txapelketaren finalak jokatu ziren. Azken partidan, Víctor Benegas eta Pedro Fernández bikotea José Luis Seguro eta Vicente Muñoz bikoteari nagusitu zitzaion. Guztira 17 bikote aritu ziren, emakumeek ere parte harturik. Txapelketaren ondoren, bazkaria eta zozketa egin ziren.
Apirilaren 5ean, Javier Angulo nutrizionistak hitzaldia emanen du elkarteko ekitaldi aretoan: "Ohitura osasungarriak 65 urtetik gora".
Apirilaren 27an, talde bat Benidormera joanen da hamaika eguneko egonaldia egiteko, eta ekainaren 9an, beste talde bat, Andorrara, 3 egun pasatzeko.
Halaber, lore tailer bat jarriko da abian.

## Actividad del Club de personas jubiladas

### El 15 de marzo celebró su Asamblea General Ordinaria

El pasado 2 de marzo se disputaron las finales del torneo de mus del Club de personas jubiladas. La pareja formada por Víctor Benegas y Pedro Fernández ganó en la final a José Luis Seguro y Vicente Muñoz. Compitieron 17 parejas, con participación de mujeres. Tras el torneo, se celebró una comida y una rifa.
El 5 de abril, el nutricionista Javier Angulo dará una charla titulada, "Hábitos Saludables a partir de los 65 años" en la sala de actos de la asociación.
Desde el 27 de abril, un grupo disfrutará de 11 días en Benidorm y el 9 de junio otro viajará a Andorra para 3 días.
También está previsto poner en marcha un taller floral.

## Poesia taldea

## Grupo de poesía



*Lluvia*

**ARANTZA LANDA**

Llueve sin permiso.
El frío salta de los charcos a los cuerpos.
No distingo a nadie;
todos ocultos bajo la capota del paraguas.
Llueve, todavía más,
en los extremos del toldillo abierto;
vamos encogidos bajo el espacio que cubre
y nos aferramos al mástil de este barco invertido.
Sólo veo volúmenes curvados contra el aguacero.
Anonimato.
La soledad cala hasta los huesos.



## Maiatzaren 12an, igandea, Pilota Goxuaren finalak

## El domingo 12 de mayo, las finales de Pelota Goxua

Etxe Beltzak antolaturiko Pilota Goxuaren XXIII. Txapelketa otsailaren 25ean abiatu eta larunbat goiz eta arratsaldez jokatzen ari da Atarrabia pilotalekuan. Finalak maiatzaren 12an eginen dira, igandearekin.

El XXIII Campeonato de Pelota Goxua de Etxe Beltza arrancó el 25 de febrero y se viene disputando los sábados por la mañana y por tarde y los domingos por la mañana en el frontón Atarrabia hasta la jornada de las finales, el domingo 12 de mayo.




## Kirol-97 pala txapelketaren irabazleak

## Ganadores del Torneo de pala Kirol-97

Joan den otsailaren 17an Pala Kirol 97 txapelketako finalak jokatu ziren. 1. mailako finalean, Goñi-Vidan bikotea Santesteban-Merindando bikoteari nagusitu zitzaion (30-26). 2. mailako finalean, Aranguren-Solanas bikoteak Vélaz-Aranguren bikoteari irabazi zion (35-34). Eta 3. mailako finalean, Urbiola-Ezkieta izan ziren irabazle Goñi-Garateren aurka (35-32). Horrez gain, emakumezkoen partidu bat jokatu zen gomazko paletan, Espinal-Esparza eta Zabalza-Sarasibar bikoteen artean (30-18).
Partiduak arras onak izan ziren, lehia bizikoak, berdinduak hala jokoan nola emaitzetan. Harmailetan ere arras giro ona, frontoia erdiraino betea baitzegoen. Azken buruan, bost ordu baino gehiago gomazko paletarekin gozatzeko.
Txapelketa bukatutakoan, 60 lagun elkartu ziren afaltzeko.

En el pasado 17 de febrero se disputaron las finales del Campeonato Pala Kirol 97. En la final de 1ª categoría la pareja Goñi-Vidan venció a Santesteban-Merindando (30-26). En la final de 2ª categoría vencieron Aranguren-Solanas a Vélaz-Aranguren (35-34). Y en la final de 3ª categoría vencieron Urbiola-Ezkieta a Goñi-Garate (35-32). Además, se disputó un partido de exhibición de paleta goma femenino entre las parejas Espinal-Esparza y Zabalza-Sarasibar (30-18).
Fueron muy buenos partidos, igualados tanto por resultado como por juego, y el festival se vivió en medio de un gran ambiente con media entrada de personas aficionadas que disfrutaron de más de cinco horas de paleta goma. .
Tras el torneo, 60 palistas se reunieron para disfrutar de una cena.

# AGENDA

OTSAILA
MARTXOA
APIRILA

**ERAKUSKETAK**
KULTUR ETXEA
**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 21:00etara. Halaber, 19:00etatik 20:00etara apirilaren 14an, 21ean eta 28an, igandea



**MARRAZKIA**
"Akropoliak (edo holako zerbait)"
**Datak:** apirilak 11-28

**UDAL IKASTAROAK**
**Pintura:**
maiatzak 7-17
**Eskulanak:**
maiatzak 21-31
**Argazkia:**
ekainak 4-16

## APIRILA

**07 IGANDEA**

Nafarroako Betekiaren Kofradiaren XVII. Batzarra
11:30 Segizioan aterako dira, dantzariek eta txistulariek lagundurik Kultur Etxeko antzokiraino
12:00 Ohorezko Kofradiakideak eta kide osoak sartzea. Zin egiteko ekitaldia eta Atarrabia Abesbatzaren emanaldia Kultur Etxeko antzokian. Sarrera librea

**09 ASTEARTEA**

Solasaldia
**"Manosfera eta pronografia. Nola sortu harreman afektibo-sexual osasuntsuak"**
Carmen Ruiz Repullok gazteekin aritzeko estrategiarik egokienak izanen ditu solasgai
18:30 / Kultur Etxea

**09 ASTEARTEA**

Antzerki amateurra
**"Margarita reina orquídea"**
Amarga Teatro
20:00 / Antzokia / 9 € leihatila, 8 € internet

**10 ASTEAZKENA**

Antzerki amateurra
**"Margarita reina orquídea"**
Amarga Teatro
20:00 / Antzokia / 9 € leihatila, 8 € internet

**12 OSTIRALA**

Tailerra: Adinekoekiko udal estrategia
**"Atarrabian bizitzea"**
Adinekoen etxebizitza, ekonomia eta kontsumoa aztergai
17:00 / Kultur Etxea

**13 LARUNBATA**

Antzerkia
**"¿Inanias?"**
Maku Gutiérrez
19:30 / Antzokia / 3 €

**14 IGANDEA**

Atarrabia Mendi Taldea
**Arangoiti**

**14 IGANDEA**

Teatro
**"¿Inanias?"**
Maku Gutiérrez
19:30 / Antzokia / 3 €

**16 ASTEARTEA**

Hitzaldia. Herritartasun Eskola
**"Alojamientos colaborativos senior: otra manera de envejecer"** Julia Munárriz eta Maite Gaztelu (Etxekonak Bat)
19:30 / Sala 13 Casa de Cultura

**17 ASTEAZKENA**

Zine-foruma emakumea
**"Lady Bird"**
Greta Gerwing
19:00 / Antzokia / Sarrera: librea

**20 LARUNBATA**

Dantza
**"30. Urteurrena / 30 Aniversario"**
Mikelats Dantza Taldea
18:30 / Antzokia / 5 €

**21 IGANDEA**

Hiru Herri lasterketa herrikoia
**Burlata-Burlata**
Irteera: 11:30
Lasterketak, 5 km eta 10 km

**21 IGANDEA**

Dantza
**"30. Urteurrena / 30 Aniversario"**
Mikelats Dantza Taldea
18:30 / Antzokia / 5 €

**23 ASTEARTEA**

Ipuin-kontalaria Gaztelaniaz
"Flobin y los cuentos del maletin"
Xabier Flamarique
18:00 / Sala 8 de la Kultur Etxeko 8. Gela / 4 urtetik aurrera
10 minutu lehenago hartu behar den gonbidapenarekin

**24 ASTEAZKENA**

Ipuin-kontalaria Ingelesez
"2 Hearts and one Potato"
Virginia Moriones
18:00 / Kultur Etxeko 8. gela / 4 urtetik aurrera
10 minutu lehenago hartu behar den gonbidapenarekin

**25 OSTEGUNA**

Ipuin-kontalaria Euskaraz
"Mikel liburujale"
Lur Usabiaga
18:00 / Kultur Etxeko 8. gela / 4 urtetik aurrera
10 minutu lehenago hartu behar den gonbidapenarekin

**27 LARUNBATA**

Tailerra: Adinekoekiko udal estrategia
**"Atarrabian ibiltzea"**
Herritar ibilaldia eta mapaketa, lurraldea, hirigintza, eremu publikoa, garraioa eta irisgarritasuna, ingurumena, etab. aztertzeko.
11:00 / Kultur Etxea

**27 LARUNBATA**

Rock kontzertua euskaraz
**Hogei Berriro**
20:00 / Antzokia / 6 € leihatila, 5 € internet

**28 IGANDEA**

Atarrabia Mendi Taldea
**Auñamendi Lescunetik**

**28 IGANDEA**

Dantza. DNA Jaialdia
**"Luz Negra"**
Dinamo Danza
20:00 / Antzokia / 6 € leihatila, 5 € internet

## MAIATZA

**04 LARUNBATA**

Antzerkia
**"El salto de las Tillandsias"**
Leuna Teatro
20:00 / Antzokia / 8 €

**05 IGANDEA**

Musika
**"De aquí y de allá / Hangoak eta hemengoak"**
Atarrabia Abesbatza
20:00 / Antzokia / 6 €

**10 OSTIRALA**

Tailerra: Adinekoekiko udal estrategia
**"Atarrabian zahartzea"**
Adinekoendako erakunde, ekipamendu eta zerbitzuak aztergai
17:00 / Kultur Etxea

**10 OSTIRALA**

Argazkia
**"Iluminando las tinieblas"**
Fernando Pla
20:00 / Antzokia / Librea

**11-12 LARUNBATA-IGANDEA**

Atarrabia Mendi Taldea
**Tebarray**

**11 LARUNBATA**

Musika
**"20. urteurreneko bira"**
Korrontzi
20:00 / Antzokia / 6 €

**12 IGANDEA**

Musika
**"Entre Silvio y Pablo te doy una canción"**
Jorge Sanchez (gitarra eta ahotsa), Eva Niño (txeloa)
20:00 / Antzokia / 5 €

**14 ASTEAZKENA**

Antzerkia
**Festival Literarte Jaialdia**
**"Los finales no escritos"**
Producciones Maestras
19:00 / Antzokia / Librea gonbidapenarekin (Liburutegia)
Saioaren ondotik, topaketa antzezleekin, egilearekin eta zuzendariarekin

**14 ASTEARTEA**

Hitzaldia
Herritartasun Eskola
**"Gatazka palestinarraren eragile historikoak"**
Manuel Martorell
19:30 / Kultur Etxeko 13. gela

**15 ASTEAZKENA**

Zine-foruma emakumea
**"Rara"**
Pepa San Martín
19:00 / Antzokia / Sarrera: librea

**17 OSTIRALA**

Antzerkia
**"Liberarse. Reflexiones de armario"**
La Piel Producciones
20:00 / Antzokia / 4 €

**18 LARUNBATA**

Antzerkia familientzat
**"Organik"**
Ameztu taldea
18:00 / Antzokia / 3 €

**19 IGANDEA**

Musika
**"¡De cine!"**
San Andrés Abesbatza
20:00 / Antzokia / 6 €

**24 OSTIRALA**

Tailerra: adinekoekiko udal estrategia
**"Atarrabian elkar bizitzea"**
Adinekoekiko informazioa, parte-hartzea, bizikidetza eta boluntarioak aztergai
17:00 / Kultur Etxea

**25-26 LARUNBATA-IGANDEA**

Atarrabia Mendi Taldea
**Robiñera**

**25 LARUNBATA**

Antzerki musikala. ANTEM ikasturte bukaera
**"Misantropo"**
20:00 / Antzokia / 12 €

**26 IGANDEA**

Antzerki musikala. ANTEM ikasturte bukaera
**"Instrucciones para ser una buena esposa"**
20:00 / Antzokia / 12 €

## EKAINA

**1-2 LARUNBATA-IGANDEA**

Atarrabia Mendi Taldea
**Barranko eta Ibaia**

**08 LARUNBATA**

Atarrabia Mendi Taldea
**Bazkaria**

**14 OSTIRALA**

Antzerki musikala. ANTEM ikasturte bukaera
**"Malísimos"**
20:00 / Antzokia / 12 €

**15 y 16 LARUNBATA eta IGANDEA**

Antzerki musikala. ANTEM ikasturte bukaera
**"Chicas malas"**
20:00 / Antzokia / 12 €

**19 ASTEAZKENA**

Diagnostikoaren aurkezpena. Adinekoekiko udal estrategia
19:00 / Kultur Etxea

# AGENDA

**ABRIL**
**MAYO**
**JUNIO**

## EXPOSICIONES

**CASA DE CULTURA**
**Horario:** Lunes a viernes, de 18:00 a 21:00. También de 19:00 a 20:00 los domingos 14, 21 y 28 de abril



**DIBUJO**
"Acrópolis (o algo así)"
**Fechas:** 11-28 de abril

**MUESTRAS CURSOS MUNICIPALES**
**Pintura:** 7-17 mayo
**Manualidades:** 21-31 mayo
**Fotografía:** 4-16 junio

**09 MARTES**
Charla
**"Manosfera y pornografía. Cómo establecer relaciones afectivo sexuales sanas"**
Estrategias para intervenir con población joven. Carmen Ruiz Repullo.18:30, Casa de Cultura

**09 MARTES**
Teatro
**"Margarita reina orquídea"**
Amarga Teatro
20:00 / Teatro / 9 € taq., 8 € int.

**10 MIÉRCOLES**
Teatro
**"Margarita reina orquídea"**
Amarga Teatro
20:00 / Teatro / 9 € taq., 8 € int.

**12 VIERNES**
Taller Estrategia municipal con las personas mayores
**"Habitar Villava"**
Análisis de la vivienda, la economía y el consumo de las personas mayores
17:00 / Casa de Cultura

**13 SÁBADO**
Teatro
**"¿Inanias?"** Maku Gutiérrez
19:30 / Teatro / 3 €

**14 DOMINGO**
Atarrabia Mendi Taldea
**Arangoiti**

**14 DOMINGO**
Teatro
**"¿Inanias?"** Maku Gutiérrez
19:30 / Teatro / 3 €

**16 MARTES**
Conferencia. E. de Ciudadanía
**"Alojamientos colaborativos senior: otra manera de envejecer"** Julia Munárriz y Maite Gaztelu (Etxekonak Bat)
19:30 / Sala 13 Casa Cultura

**17 MIÉRCOLES**
Cine forum mujer
**"Lady Bird"** Greta Gerwing
19:00 / Teatro / Entrada: libre

**20 SÁBADO**
Danza
**30 Aniversario"**
Mikelats Dantza Taldea
18:30 / Teatro / 5 €

**21 DOMINGO**
Carrera Polular Hiru Herri
**Burlada-Burlada** Salida: 11:30

**21 DOMINGO**
Danza
**30 Aniversario"**
Mikelats Dantza Taldea
18:30 / Teatro / 5 €

**23 MARTES**
Cuentacuentos Castellano
"Flobin y los cuentos del maletin" Xabier Flamarique
18:00 / Sala 8 de la Casa de Cultura / A partir de 4 años
Con invitación que hay que recoger 10 minutos antes

**24 MIÉRCOLES**
Cuentacuentos Inglés
"2 Hearts and one Potato"
Virginia Moriones
18:00 / Sala 8 de la Casa de Cultura / A partir de 4 años
Con invitación que hay que recoger 10 minutos antes

**25 JUEVES**
Cuentacuentos Euskera
"Mikel liburujale" Lur Usabiaga
18:00 / Sala 8 de la Casa de Cultura / A partir de 4 años
Con invitación que hay que recoger 10 minutos antes

**27 SÁBADO**
Taller Estrategia municipal con las personas mayores
**"Recorrer Villava"** Paseo y mapeo para analizar el territorio, el urbanismo y el espacio público, el transporte y la accesibilidad, el medio ambiente.11:00 / Casa de Cult.

**27 SÁBADO**
Concierto rock en euskera
**Hogei BerrRo**
20:00 / Teatro / 6 € taq., 5 € int.

**28 DOMINGO**
Atarrabia Mendi Taldea
**Auñamendi desde Lescun**

**28 DOMINGO**
Danza. Festival DNA
**"Luz Negra"** Dinamo Danza
20:00 / Teatro / 6 € taquilla, 5 € internet

## MAYO

**04 SÁBADO**
Teatro
**"El salto de las Tillandsias"**
Leuna Teatro
20:00 / Teatro / 8 €

**05 DOMINGO**
Música
**"De aquí y de allá / Hangoak eta hemengoak"**
Atarrabia Abesbatza
20:00 / Teatro / 6 €

**10 VIERNES**
Taller Estrategia municipal con las personas mayores
**"Envejecer en Villava"**
Análisis de las instituciones, los equipamientos y los servicios para las personas mayores
17:00 / Casa de Cultura

**10 VIERNES**
Fotografía
**"Iluminando las tinieblas"**
Fernando Pla
20:00 / Teatro / Libre

**11-12 SÁBADO-DOMINGO**
Atarrabia Mendi Taldea
**Tebarray**

**11 SÁBADO**
Música
**"Gira 20 aniversario"** Korrontzi
20:00 / Teatro / 6 €

**12 DOMINGO**
Música
**"Entre Silvio y Pablo te doy una canción"**
Jorge Sanchez y Eva Niño
20:00 / Teatro / 5 €

**14 MARTES**
Teatro
**Festival Literarte Jaialdia**
**"Los finales no escritos"**
Producciones Maestras
19:00 / Teatro / Libre con invitación (Biblioteca)
Tras la función, encuentro con con elenco, autora y directora

**14 MARTES**
Conferencia. E. de Ciudadanía
**"Causas históricas del conflicto palestino"**
Manuel Martorell
19:30 / Sala 13 Casa de Cultura

**15 MIÉRCOLES**
Cine forum mujer
**"Rara"** Pepa San Martín
19:00 / Teatro / Entrada: libre

**17 VIERNES**
Teatro
**"Liberarse. Reflexiones de armario"** La Piel Producciones
20:00 / Teatro / 4 €

**18 SÁBADO**
Teatro familiar
**"Organik"** Compañía Ameztu
18:00 / Teatro / 3 €

**19 DOMINGO**
Música
**"¡De cine!"** Coral San Andrés
20:00 / Teatro / 6 €

**24 VIERNES**
Taller Estrategia municipal con las personas mayores
**"Convivir en Villava"** Análisis de la información, la participación, la convivencia y el voluntariado con las personas mayores
17:00 / Casa de Cultura

**25-26 SÁBADO-DOMINGO**
Atarrabia Mendi Taldea
**Robiñera**

**25 SÁBADO**
Teatro Musical. ANTEM
**"Misantropo"** 20:00 /Teatro /12 €

**26 DOMINGO**
Teatro Musical. ANTEM
**"Instrucciones para ser una buena esposa"**
20:00 / Teatro / 12 €

## JUNIO

**1-2 SÁBADO-DOMINGO**
Atarrabia Mendi Taldea
**Barranko e Ibaia**

**08 SÁBADO**
Atarrabia Mendi Taldea
**Comida**

**14 VIERNES**
Teatro Musical. ANTEM
**"Malísimos"**
20:00 / Teatro / 12 €

**15 y 16 SÁBADO- DOMINGO**
Teatro Musical. ANTEM
**"Chicas malas"**
20:00 / Teatro / 12 €

**19 MIÉRCOLES**
Presentación del diagnóstico. Estrategia municipal con las personas mayores 19:00 / C. de Cultura


**Anúnciate en el Boletín de información municipal de Villava**
✆ 948 13 67 66
4.400 ejemplares / ale
PERIODICIDAD/MAIZTASUNA: bimestral / bi hilabetekoa
**Zure iragarkia Atarrabiako udal informazio aldizkarian**




C/ Ezcaba, 5
31610 Villava
MILLÁN
ÓPTICA
685 18 43 95
948 14 36 40




opticamillan@gmail.com

# CUIDAMOS TU SONRISA

CDV

CLÍNICA DENTAL

VILLAVA





- Todas las soluciones para tu salud bucodental en Villava.
- Pídenos tu plan de tratamiento personalizado y pregunta por nuestras fórmulas de financiación.
- Somos expertos en: implantología, periodoncia, ortodoncia, diseño de sonrisa y odontopediatría (atención PADI).
- Tecnología de vanguardia y escáner 3D.

C/ Ezkaba 4, bajo 31610, VILLAVA - T. 948 13 06 05

WWW.CLINICADENTALVILLAVA.COM